# Ahozko jarduna hobetzeko proposamenak

## Debarroko hizkeretan

**BADIHARDUGU EUSKARA ELKARTEA**

Prestatzaileak:
Estepan Plazaola
Karmele Agirregabiria
Karmen Bikuña

**Izenburua:** Ahozko jarduna hobetzeko proposamenak. Debarroko hizkeretan.
**Prestatzaileak:**
- Akatsen azalpenak: Estepan Plazaola
- Ariketak: Karmele Agirregabiria eta Karmen Bikuña

**Irudiak:** Josu Okina.
**Hizkuntza orrazketa:** Sergio Azkarate

**Argitaratzailea:** Badihardugu elkartea, Urkizu pasealekua 11, 20600 Eibar.
Tel.: 943 12 17 75
**Badiharduguko koordinatzailea:** Iban Arantzabal
**Diseinua :** Arteman
**Maketazioa:** Gertu
**Inprimategia:** Gertu
**Inprimatze data:** 2005-05-27
**ISBN:** 84-609-5289-4
**LG:** SS-683/05

Oharrak

• Liburu honetan azaldutakoaren inguruan edozein iradokizun egin edo azaltzen ez den akatsen baten berri eman gura izanez gero, idatzi helbide honetara: ahozkojarduna@badihardugu.com

• Leku arazoagatik, akatsak lantzeko ariketa bakoitza herri hizkera bakarrean agertzen da liburu honetan. Hala ere, ariketok beste herri hizkera batzuetan ere lor litezke interneteko badihardugu.com/argitalpenak/euskara_hobetuz

# Aurkibidea


Hitzaurrea ........................................................ 5

1/ **Akatsen azalpena** .......................................... 7
Sarrera ............................................................ 9
Azalpenak ...................................................... 11
Aditza ....................................................... 11
Morfosintaxia ........................................... 23
Erdaratiko lokailuak eta egiturak ............. 37
Lexikoa ..................................................... 48
Fonetika .................................................... 58
Bibliografia .................................................... 59

2/ **Ariketak** ...................................................... 61
Sarrera ........................................................... 63
Ariketak .......................................................... 65
Aditza ....................................................... 65
Morfosintaxia ........................................... 86
Erdaratiko lokailuak eta egiturak ........... 110
Lexikoa ................................................... 113
Handik eta hemendik ............................ 124
Ariketen zuzenketak ..................................... 126

3/ **Gai aurkibideak** .......................................... 135

# Hitzaurrea

## Euskalkixa indartuz eta euskara aberastuz

Badihardugu bidia egitten argitalpenetan be. 2000. urtetik hona hainbat ekimen bideratu dira eta argitalpenena izan da jorratu dogun bidietako bat. Liburu honekin gure asmua gauzatzeko, harritxo bat gehixago jarri dogu. Hauxe da badihardugurenasmua:

- Corpusa batzia eta euskara estandarrian bere lekua ziurtatzia.
- Gure berbetia prestijiatzia eta konplejuak baztartzia.
- Deba Ibarreko euskaltzaliak batuko dittuan gunia osatzia.
- Transmisiño naturala eta kulturala bultzatzia.

Honekin liburuonekin, saiatuko gara tramisiño horretarako tresna bat aurkezten. Gehixen egitten diran akatsak izan dira batu dittugunak eta horretan oiñarri izan da Estepan Plazaolak egindako lana. Hori txukundu eta hobetzen jardun dogu luzaruan eta gaiñera ariketak be gehittu dotsaguz teorixiari. Karmenek eta Karmelek  borobildu egin dabe lana ariketokin.

Ez da filologuendako lana eta berba potolorik ez dozu topauko. Heldu gura dogu guraso gaztiongana, begiraliengana, irakasliengana eta nagusixongana. Ez zuei ezer erakusten ibiltzeko eta bai materixala eskura izan deizuen.

Liburu honetan oso modan jarri diran "akatsak" topauko dittuzu eta baitta horrei buelta emoteko modua be. Liburuarekin ez dogu euskalkixarendako arau zorrotzik emon gura, izan be, beti zuzendu eta zuendu ibilitta badakigu ezer gutxi lortzen dala. Halandabe, irakurri, gogoratu eta zuek baiño gaztiaguekin lantzeko modurik badaukazue lortu dogu espero giñuana baiño gehixago. Zuretzako errezagua izan dein, material guztia Interneten be jarri dogu eta handik kopixatzeko modua eukiko dozu, bai ariketa multzua eta baitta teorixia be. Eskoletan-eta erabiltzeko egoki prestatuta dago testuori.

Gure herrixetako hizkerak aztertuta eta indartuta, euskeria bera sendotu eta aberastia da gure helburua. Lortuko dogu.

Gurekin edozertarako harremanetan jartzia gura badozu idatzi hona:
*ahozkojarduna@badihardugu.com*

**Iban Arantzabal Arrieta**
Badihardugu, Deba Ibarreko Euskara Elkartea

# 1
# AKATSEN AZALPENAK

Estepan Plazaola

# Sarrera

Hizkuntza normalizatuetan gurasoak, nagusiak, izaten dira umeen hizkuntza eredu.

Euskararen kasuan askotan ez da hori betetzen; kasu batzuetan nagusiok ez dakitelako eta beste batzuetan beren euskara gutxietsi eta ez dutelako eginkizun hori euren gain hartzen. Eta, are okerrago, gertatzen da, adibidez, euskaraz ondo egiten duten guraso edo aitajaunamandreek umeen akatsak zuzendu beharrean umeen akatsak berenganatzea. Oraintsu arte ez dugu entzun gure inguruko euskaldun onen ahotan *nire zorionak dira, Realak ondo jolastu dau, betiko bezala...* eta antzekorik, baina gaur gutxien uste denak botatzen ditu. Hizkuntzaren jarraipenean eredu izan behar dutenen segurtasun faltaren adierazle da hori.

Liburu xume honek gaitz hori sendatzen lagundu nahi luke: gure eskualdeko euskaldunei bertako euskaran entzuten diren akats nagusiak zuzentzeko eta horien inguruko zalantzak argitzeko materiala eskaini nahi lieke.

Euskararen jarraipenean protagonismo handiena dutenei begira moldatua da, batez ere: irakasleei, aisialdiko begiraleei, kirol entrenatzaileei, guraso gazteei... Hala ere, beste edozein euskaldunentzat ere lagungarri izan litekeela uste dugu.

Jakin badakigu landu dugun gaia, hizkuntza kalitatearena, eztabaidagarria dela. Hemen, batez ere, euskaraz txukun samar moldatzen diren hiztunen berbeta hartu dugu zuzentasunaren eta jatortasunaren neurri. Horrek baditu bere arriskuak: munduko hizkuntza guztiak ari dira etengabe aldatzen eta gurean ere ez genuke hori guztiz baztertu behar.

Hemen sartu diren akatsak ere ez dira guztiak maila berekoak. *Nire urtebetetzea* edo *nire eguna*ren ordez *nire zorionak* erabiltzeak ez dakarkio, gure ustez, euskarari ezelako onurarik. Gaztelaniatik jasotako zenbait lokailu (*eske*, adibidez) edo euskararen baitako bilakaeratik sortutako beste egitura batzuk (*kristoren ona*) lagunarteko erregistroan onartu beharrekoak izan litezke, ostera.

Hiperzuzenketarako arriskua ere badugu. Hainbat urtetan baztertu egin izan da, esaterako, *zergatik* lokailu gisa erabiltzea, nahiz eta adinekoetan oso normalak diren hau bezalako esaldiak: *Etzaittez biar etorri, zegaittik eze biar illan azkena da ta jente asko egongo da.* Gaur Euskaltzaindiaren gramatikan onargarritzat jotzen da.
Gure ume eta gazteek euskara bizia, euskara malgua, azkarra... erabiltzeko gai izan daitezen zenbait akats zuzentzea baino askoz gehiago behar dute. Liburu honen helburutik harantzagoko kontua da hori.

Bukatzeko lana atontzen lagundu didatenei eman nahi nizkieke eskerrak, bereziki Jesus Mari Makazaga eta Koldo Zuazori, egin dizkidaten ohar eta zuzenketengatik. Hala ere, akatsik balitz, horien ardura nirea da.

# AZALPENAK[1]

# Aditza

## Aditz nagusia

## 1

***Laguntzen*** dostazu? ➜ **Lagunduko** dostazu?

***Laguntzen, joaten, uzten…*** aditz formak aditzak adierazten duen ekintza ohikotasunez gertatzen dela edo hiztunak hitz egiten duen unean gertatzen ari dela adierazteko erabiltzen dira:

- *Niri laguntzen dihardu*
- *Sarri joaten gara zinera…*

Baina gaztelaniaz ***ayudo, vamos, dejas*** aditzak esanahi hori (ohikotasuna, gertatzen ari den ekintza) adierazteko ez ezik etorkizuna adierazteko ere erabiltzen direnez, euskaraz ere esanahi hori ematen zaio berez ez duen aditz formari. Erabilera zuzena hau da, beraz:

| | |
|---|---|
| • *Te ayudo todos los dias:* | *Egunero laguntzen dotsut.* |
| • *¿Te ayudo?* | *Lagunduko dotsut? / Ez *Laguntzen dotsut?* |
| • *Nosotros vamos todos juntos.* | *Gu danok batera joaten gara. (Egunero, ohituraz)* |
| • *Nosotros vamos todos juntos:* | *Gu danok batera goiaz (orain); gu danok batera joango gara (orain, bihar)* |
| • *¿Vamos todos juntos?* | *Joango gara danok batera? / Ez *Joaten gara…?* |

1. *Oharra: Esaldiak akasdunak direla adierazteko izartxoa jarri ohi zaie normalean gramatiketan. Guk ere hala egin dugu testuetan baina ez akats bakoitzaren goiburuan, horietan beste bide batez azaldu baitugu zein den egitura desegokia eta zein proposatzen dena: ezkerrean egitura desegokia agertzen da eta ondoren geziaren eskuma aldean aholkatzen dena. Hala ere, zenbait kasutan izan litezke azalpenetan ñabarduraren batzuk.*




# 2

***Juatia bihar dot / Biot juan*** ➜ **Juan biharra daukat**
➜ **Juan bihar dot**
➜ **Juan nahi dot**

Gaztelaniazko ***ir*** euskaraz ***joan*** zein ***joatea*** itzuli liteke:

- *Quiero ir a casa: Etxera **juan** nahi dot*
- *No te recomiendo ir demasiado temprano: Ez dotsut gomendatzen goizegi **juatia**.*

Seguruena, horren eraginez, berez, aditz-era burutuarekin, ***joan***ekin, osatu izan diren egituretan ere ***joatea*** sartu da.

Esanahi bertsua adierazteko erabiltzen da akasdun bigarren forma *(**biot juan**)* ere. Zerbaiten premia edo halabeharra adierazteko, ***beharra eduki***, ***beharra izan, beharrean izan***... erabiltzen dira, beti ere aditz-forma burutuarekin:

- *Etxera juan biharra daukat.*
- *Etxera juan biharrean naiz.*
- *Etxera juan bihar dot.*

Bestalde, gero eta gehiago erabiltzen da ***behar*** aditza ***nahi*** erabili beharko litzatekeen kasuetan. Adibidez, ***Lagunei esatia bihar dau*** eta horrelakoak erabiltzen dira ***Lagunei esatia nahi dau*** edo ***Lagunei esan nahi dotse*** adierazteko. ***-tzea behar du*** egitura ez da normalean zuzena.

# 3

## *Dana **jatia egin** dosta* ➜ Dana **jan eragin** dost

Gaztelaniazko kalkoa: *hacer comer = *jatia egin.*

Euskara batua zer den ondo ez ulertzearren, batuan ***–arazi*** zabaldu da ***eragin***en lekuan eta gure eskualdeko ume eta gazteei ***–arazi*** arrotza zaienez eta ***eragin*** transmititu ez zaienez, azkenean egitura berria sortu dute, beste askotan bezala, gaztelanian oinarrituta.

***Jatia egin dot*** esamoldiak beste esanahi bat du: *oraintxe bertan amaitu dot jatia.*

# 4

## ***Juateko bera!*** ➜ **Juan dadila bera! / doiala bera!**

***Juateko*** eta ***juan dadila*** sinonimoak dira zenbait aditzekin (***esan, eskatu, agindu, proposatu***...) doazen menpeko esaldietan:

- *Esaiozu **juateko** = esaiozu **juan dadila***

***Ixiltzeko, joateko***... aditz gobernatzaileak (aditz nagusiak) ere esplizituki agertzen diren esaldietan erabiltzen dira gehienetan, nahiz eta kasu batzuetan aditz nagusi horiek ezkutatuta egon litezkeen; era honetako kasu batean, adibidez: norbaiti esan diogu behin eta berriz ixiltzeko eta ez da ixiltzen. Kasu horretan zuzena izango litzateke hau esatea:

- *Ixiltzeko!*

Inplizituki hau izango genuke esaldi horretan:

- *Ixiltzeko (esan dotsut)!*

Baina ***Juan dadila!*** bezalako esaldiak erabiltzen dira hutsik, batez ere, subjektua 3. pertsona denean, modu honetako esaldietan:

- *Doiazela!*
- *Etorri dadilla gura badau!*
- *Egin daixela berak!*

Esaldi horietan ez diogu solaskideari agindurik ematen, esaldi horietan ez dugu honakoa adierazi nahi: *esaiozu doiazela, esaiozu etorri dadilla, esaiozu egin daixela…*

Horietan esanahia honelako zerbait izango genuke: *joatea daukate, etortzea dauka, egitea dauka berak…*

Halakoetan ez da zuzena ***–tzeko*** erabiltzea:

- *Joateko!
- *Etortzeko gura badau!
- *Egitteko berak!

# 5

## *Zenbat* ***baliotzen dau?*** ➜ Zenbat balio dau?
## ➜ Zenbat da?

Aditza balio ***ukan da*** eta ez *baliotu*. Bestalde, gogoan izan ***zenbat balio dau?*** esateko beste modu bat ere badagoela: ***zenbat da?***

Antzeko akatsa egiten da beste aditz batzuekin ere:
****Bizitu/bizi izan:*** **non bizitzen da zure laguna? → non bizi da zure laguna?*

# 6

## *Jolastuko dogu?* ➜ Jolas egingo dogu?; jolastuko gara?

***Jolastu*** aditza eskolaren eraginez sartu da gure artean. Edadekoen artean ***jolas egin, jolasian ibili***… erabili izan dira horren ordez eta horiexek izan dira beste euskalki batzuetan ere tradiziorik handienekoak.

Beraz, gure arteko tradizioari jarraituaz hauek izango lirateke arruntenak:

- *Jolas egingo dogu?*
- *Oin, jolas egin eta gero ohera.*
- *Ibilli jolasian.*
- *Ibilli honekin* (Gaur *Jolastu honekin* esaten dena)

***Jolastu***, gainera, erabili izan den tokietan, DA aditz laguntzailearekin erabili izan da eta ez DU aditzarekin:

- *Zapi zuri honekin* ***jolasten gara.***

Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batuan* ere hala jaso da, *DAre*kin erabiltzeko.




# Aditz laguntzailea

## 7

*Jonek* ***salbauko jao/dotsa*** ➜ **Salbauko dau.** (DOTSA/DAU nahasketa)

Oso zabaldua dagoen nahasketa dugu hau ere. Gaztelaniaz ondoko esaldiotan aditz forma bera erabiltzen da:

> *Mi padre* ***te llevará*** *a casa si se hace tarde.*
> *Mi padre* ***te llevará*** *el libro que olvidaste en casa.*

Euskaraz, ordea, forma desberdinak erabiltzen dira bi kasuetan:

> *Berandutzen bada, aittak* ***eroango zaittu*** *etxera.*
> *Aittak* ***eroango dotsu*** *etxean ahaztu jatzun liburua*




# 8

*Ostikadia* ***jo dost*** ➜ Ostikadia **emon dost**

*Mikelek* ***jo egin dost*** ➜ Mikelek **jo egin nau**

***Jo*** aditza NOR-NORK erakoa da, hau da, ***du, dut, nau, zaittut***... aditz laguntzaileak erabiltzea eskatzen du. Ezin da NOR erako laguntzaileekin (*jo naiz, *jo za...) erabili eta, *adarra jo dotsa* eta horrelako esamolde berezi batzuetan izan ezik, ezta NOR-NORI-NORK erako aditz laguntzaileekin ere. Beraz:

- **Mikelek jo egin dost* → *Mikelek jo egin nau.*

***Jo*** aditza erabiltzen dugunean, esaldiko NOR/ZER osagaiak beti kolpearen edo jotze ekintza horren **hartzailea** izan behar du. Edo beste modu batera esanda, hartzaileak NOR kasuan egon behar du, derrigorrez. Hortaz, ezin dira esan:

- **Mikeli ostikadia jo zotsan.*
- **Edurneri belarrondokua jo dotsa.*

Esaldi horietan ***ostikadia*** edo ***belarrondokua*** ez dira hartzaileak. Hartzaileak Mikel eta Edurne dira eta NOR kasuan egon behar dute: ***Mikel jo*** eta ez ****Mikeli jo****;* ***Edurne jo*** eta ez ****Edurneri jo.***

Eta esaldiko NOR osagaiak hartzaile (***Mikel*** *eta* ***Edurne***) izan behar badute, esaldian ezin da beste NOR osagairik (***ostikadia, belarrondokua****...*) sartu, esaldi bakoitzean NOR osagai bakarra egon litekeelako.

Hortaz, hartzailea eta kolpea, biak adierazi nahi izanez gero, EMON aditza erabilli beharra dago:

- *Nik Mikel jo dot.*

baina

- *Nik Mikeli ostikadia emon dotsat. (*Nik Mikeli ostikadia jo dotsat)*

Era berean, goian esan bezala, okerrak dira ****atiakin jo naiz*** eta era horretako esaldiak. Kasu horietan ere NOR-NORK erako aditzak (***dau, dot****…*) erabili behar ditugu:

- *Mahai-ertza belaunarekin jo dot eta egundoko mina hartu dot.*
- *Futbolian zebillela zutoiña jo zeban buruarekin eta bekaiñian ebagixa egin zeban.*

# 9

## *Hankia* ***apurtu naiz*** ➜ Hankia **apurtu dot**

Gaztelaniazko esaldi bihurkari batzuk euskaraz NOR erako aditzaz moldatzen dira:

- *Me he vestido: jantzi naiz.*
- *Me he peinado: orraztu naiz.*

Baina, esaldi horiek osagarri zuzena dutenean, aditza ezin da NOR erakoa izan, nahiz eta gaztelaniaz aurrekoaren egitura bera izan:

- *Me he roto la pierna: hankia apurtu* ***dot****/*naiz.*
- *Me he cortado el pelo: ilia moztu* ***dot****/*naiz.*
- *Me he comido un bocadillo así: halako bokadillua jan* ***dot****/*naiz.*
- *Yo me rio: Nik barre egiten* ***dot****/*Ni barre egiten naiz*

Bestalde, ***neure, heure, bere… burua*** egitura erabiliz osatzen dira gaztelaniazko beste bihurkari batzuk:

- *Se ha tirado del balcón: balkoitik bota dau bere burua (*balkoitik bota da)*

Eta ***elkar*** edo ***bata bestia*** erabilita gaztelaniazko elkarkari batzuk:

- *Guk asko maite dogu alkar. (*Gu asko maite gara)*
- *Batak bestiari lagundu egin bihar dotsagu.*




# 10

*Egunero **entrenatzen dogu*** ➜ Egunero **entrenatzen gara.**

***Entrenatu*** aditza NOR edo NOR-NORK sailekoa izan liteke, baina kasu bakoitzean erabilera desberdina du:

- *Amorrortuk(nork) entrenatzen **du** Erreala(nor) .*
- *Osasunako jokalariak(nor) goizeko 9etan entrenatuko **dira**/*dabe.*

Era berean, NOR erako aditzaz erabiltzen dira ***gizendu, potolatu, argaldu***... aditzak, kasu gehienetan:

- **Potolatu egin dot → Potolatu egin naiz.*
- **Bi kilo argaldu dot → Bi kilo kendu ditut.*

# 11

*Zuek **guri ekarri ziñuen*** ➜ Zuek **guri ekarri zoskuzuen**

*Zuk **guri karamelua ekarri dozu*** ➜ Zuk **guri karamelua ekarri doskuzu**

Gero eta gehiagotan gertatzen da NOR-NORI-NORK egitura duten esaldietan NOR-NORK erako aditza erabiltzea. Jokabide hori oso zabalduta dago dagoeneko baldintzan eta beste aditz-era batzuetan, eta indikatiboko orainaldiko formetan ere gero eta gehiago zabaltzen ari da:

- **Zuk guri egingo **ziñuke** (zenuke): **zuk guri egingo loskuzuke** (zeniguke)*
- **Zuk guri karamelua emon **dozu** (duzu): zuk guri karamelua emon **doskuzu** (diguzu)*

# 12

*Praka **gorrixak jantzi biot*** ➜ Praka **gorrixak jantzi bihar dittut**

Debarroko hainbat herritan guztiz zabalduta dago NOR-NORI eta NOR-NORI-NORK saileko adizkietan objektu pluraleko markarik ez agertzea, hau da, adizki bera erabiltzea NOR plurala edo singularra izan. Hiztun onetan ere zabalduak daude eta, beraz, ontzat eman beharrekoak dira, adibidez, era honetako esaldiak:

- *Neri pastelak gustatzen jat*
- *Neri karameluak emun dost.*

Egia da, hala ere, Debarroko zenbait tokitan erabiltzen direla objektu plurala markatzen duten adizkiak ere: ***jakoz, dostaz***…

NOR-NORK saileko adizkietan, ostera, indikatiboan eta baldintzan oraintsu arte zabalduena singular/plural bereizketa egitea izan da:

- *Kamisetia jantzi dot / Prakak jantzi dittut*
- *Neuk hartu baneu / Neuk hartu banittu*

# 13

*Guk ez **zekigun** hori* ➜ Guk ez **genkixen** hori; ***zekizun***➜**zenkixen**;

***Zeukagun*** ➜ **Geunkan**; ***zotsagun*** ➜ **gontsan**...

NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK erako aditzetan, orainaldian, NORK adierazten duen pertsona-morfema (-gu, -zu, -t...) aditzaren atzean dago:

- *Daukagu*
- *Dakizu*
- *Dotsat*

Baina lehenaldian NOR-NORI-NORK kasuan beti eta NOR-NORK kasuan NOR 3. pertsona denean, NORK adierazten duen pertsona-morfema (G-, Z-, N-) aditzaren aurrean joaten da:

- *Geunkan*
- *Zenkixen*
- *Notsan*

# 14

*Ni ez **nintzen** joango* ➜ Ni ez **nintzake** joango

*Tio **etortzen bazan**, zelako ondo e!* ➜ Tio **etorriko balitz**, zelako ondo e!

Gaztelaniazko ***iría***k bi esanahi ditu:

1. Baldintza-ondorioa:
   - *Si pudiera, **iría** a gusto.*

2. Lehenaldia. Elkarrizketa honetan, adibidez:
   - *Tu fuiste conmigo.*
   - *No recuerdo muy bien pero, tal vez, **iría.***

Euskaraz lehenengo esaldian ezin dugu ***nintzen*** erabili, ***nintzen*** beti lehenaldikoa delako. Horren ordez, baldintza-ondoriozko aditza erabili behar dugu: Debarroko hizkeran zabalduena, ***nintzake***.

Beraz forma bakoitzaren erabilera zuzena honakoa izango genuke:

- *Oso gustora **geldituko nintzen** (orduan, lehengo egunean…) baina ezin nuen.*
- *Oso gustora **geldituko nintzake** (orain) baina ezin dut.*




Era berean, ezin dugu etorkizuneko hipotesirik adierazi ***etortzen bazan*** aditzaren modukoekin ere, horrek ere lehenaldiko baldintzak adierazteko balio baitu bakarrik:

- *Esan zotsan etorten bazan hogeita hamar euro emongo zotsala.*

Etorkizuneko hipotesiak adierazteko ***-ko balitz*** erabili beharko dugu edo bestela **-tzen bada.**

- *Tio etorriko balitz, orduan bai ondo!*
- *Tio etortzen bada, orduan bai ondo!*

# 15

## *Jun **leikeza*** ➜ Jun **zeinke**

Ahalezkoaren aditz forma asko galduta daude eskualdeko euskaldun edadetuenen artean ere. Gazteagoei, berriz, tradiziozko forma arruntenak ere arrotz egiten zaizkie eta horiek ordezkatzeko, zenbait herritan, **leike + indikatiboko aditza** formulaz eratutako aditz-formak darabiltzate:

- **Leikenaiz, *leikeziñuan, *leikedogu…*

Zer egin? Lehenengo eta behin, bizirik daudenak erakustea komeniko litzatekeela uste dugu: ***neike, zeinke, zeikien...***

Eta bigarren bidea, euskaraz ondo egiten duten euskaldun zaharrek ahalezko forma falta zaienean erabiltzen dutena izango genuke, hau da, ***ahal*** erabiltzea:

- *Egin **ahal** dotsut, ikusi **ahal** ziñuan…*

Edozein modutan, ***ahal izan***ekin osatutako esaldi traketsak ere zabaldu dira:

- **Ahal naiz joan komunera? →Joan neike komunera? Joan ahal naiz komunera?*

# 16

## *Berak nahi **jokelako*** ➜ Berak nahi **dabelako**

Nahiz eta hika jardun, menpeko esaldiko aditzak –(E)LA, -(E)N, (E)LAKO edo beste edozein menderagailu badarama, ezin da aditz alokutiborik erabili.

- *Esan jok etorriko dala (*dokela).*
- *Etortzen danian (*dokenian) esaixok deitzeko.*
- *Nik ez juat esan neuk erosiko dotenik (*juatenik).*

Euskaltzaindiak ez du oraindik aditz alokutiboaren erabilera arautu. Gure oraintsu arteko tradizioan indikatiboan, indikatiboko baldintzazkoan (ondorioan bakarrik) eta ahalezkoan erabili izan da, normalean.

# 17

## Beste aditz gaizki eratu batzuk

Zoritxarrez asko dira gure artean ahoz aho dabiltzan gaizki eratutako aditz-formak eta ezin izango genuke hemen horien guztien zerrenda osoa eskaini, tartean herri jakin batzuetan eta pertsona gutxi batzuek erabiltzen dituztenak ere badira eta. Jarraian horietako batzuek aipatuko ditugu:

- Gu ***goia*** → Gu **goiaz**. ***Joan*** aditzaren forma egokiak hauek (edo herrian herriko hauen aldaerak) dira: *Ni noia, hi hoia, haura doia, gu goiaz, zu zoiaz, zuek zoiazte, harek doiaz.*
- *Nik egin **doten/noten** → Nik egin* **neban.**
- *Nik egin **juaten** → Nik egin* **najuan/naixuan.**

# Morfosintasia

## 18

### *Ez daukat dirua* ➜ Ez daukat dirurik

Esanahi desberdina dute ondorengo bi esaldiok:

- *Ez dut txakurrik ikusi*
- *Ez dut txakurra ikusi*

Lehenengo kasuan ezeztapena erabatekoa da, ez dugu inolako txakurrik ikusi. Kasu horretan esaldi horren esanahia honako honen antzekoa izango litzateke:

- *Ez dut batere txakurrik ikusi.*

Bigarren kasuan, berriz, txakur ezagun bat ez dugula ikusi esaten ari gara.

Ezezkako esaldietan, ezeztapena erabatekoa denean, objektuak ***–(r)ik*** partitiboa eraman ohi du:

- *Ez daukat (batere) gogorik/ *gogoa*
- *Ez dago (batere) urik/*ura*
- *Mendian ez dago zuhaitzik / *Mendian ez daude zuhaitzak.*

*Eta jokabide bera erabiltzen da galderetan ere:*

*Jateko gogorik badaukazu?/ *Jateko gogua badaukazu?*
*Lanik egin dozu? ≠ Lana egin dozu?*

# 19

***Jateko goguak dauzkat*** ➜ jateko **gogua daukat.**

***Gogo*** hitza normalean singularrean erabiltzen da.

# 20

*Beti **pailazoa egiten** zabitz* ➜ Beti **pailazoarena egiten** zabitz**.**

Bi gauza dira pertsona batek

- *Pailazoa egitea (*marmolez, buztinez… pailazo bat egitea*).*

eta

- *Pailazoarena egitea (*pailazoek egiten dituzten gauzak egitea*).*

# 21

***Zuria** berba egin dabe* ➜ **Zure gaiñian** egin dabe berba

***Zuria gustatzen** da* ➜ **Zurekin gustauta** dago

*Ez naiz **zuria fixatzen*** ➜ Ez naiz **zurekin fixatzen**

Gaztelaniazko ***de***k esanahi asko dauzka. Horietako batzuk, honako hauek:

- **Jabetza**: *El libro es **de Miren**.*
- **Gaia**: *Están hablando **de Miren**.* (Sobre Miren / acerca de Miren).
- **Hainbat esamolde**:
  - **Gustarse de...:** *Se gusta **de Miren**.*
  - **Fiarse de...:** *No me fio **de Miren***.
  - **Reirse de...:** *Se está riendo de tí*

Erdaraz kasu guztietarako ***de*** erabiltzen delako, euskaraz ere joera handia dago denerako forma bera erabiltzeko:

- **Jabetza**: *Liburua **Mirenena** da.*
- **Gaia**: *****Mirenena** berbetan dabiz.*
- **Gustarse de...**: *****Mirenena** gustatzen da*.
- **Fiarse de...:** *****Mirenena** fixatzen naiz*.
- **Reirse de**... : *****Mirenena** barre egiten dabiz*.



Nola izango lirateke, beraz, gaizki esaten diren esaldiok?

**a) Gaia**: Lau forma ematen ditugu jarraian. Lehenengo biak dira Bergaran gehien erabili izan direnak eta hirugarrena ere dezente sartu da batuaren eraginez.

| Galdera | Erantzuna |
|---|---|
| • *Zeiñen gaiñian dabiz berbetan? (*Zeiñena...?)* | • *Mirenen* ***gaiñian*** *dihardue. (*Mirenena dabiz)* |
| • *Zeiñ**egaittik** preguntau dau? (*Zeiñena ...?)* | • *Zu**gaittik** preguntau dau? (*Zuria dabiz berbetan?)* |
| • *Zeiñi* ***buruz*** *dihardu? (*Zeiñena dihardu?)* | • *Lagun bati* ***buruz***. *(*Lagun batena)* |
| • *Zeiñe**taz** dabil berbetan? (*Zeiñena dabil...?)* | • *Gu**taz** dihardue. (*Guria dihardue)* |

**b) Gustarse de... egitura:** egitura hau hainbat modutara esaten da euskaraz. Erabiliena ***Nor gustatu*** egitura da, dudarik barik, baina badira beste batzuk ere: Bergaran, adibidez, edadetuen ahotan ohikoa da ***Norekin gustatuta egon*** egitura; beste egitura bat ***Noren atzetik ibili*** dugu…

| Galdera | Erantzuna |
|---|---|
| • *Zein gustatzen jatzu zuri? (*Zeiñena gustatzen za zu?)* | • *Niri, Mikel gustatzen jat. (*Ni, Mikelena gustatzen naiz)* |
| • *Zein dago zu**rekin gustauta**? (*Zein gustatzen da zuria?)* | • *Mikel dago nir**ekin** gustauta.* |
| • *Zeinen atzetik zabitz zu?* | • *Ni Mikelen atzetik nabil.* |
| • *Zein dabil zure atzetik?* | • *Mikel dabil nire atzetik.* |

**c) Fiarse de... esamoldea:** ***Norekin fixau*** da gaztelaniazko esamolde horren euskarazko ordaina.

- *Ez naiz **zurekin** fixatzen.*

**d) Reirse de... esamoldea:** ***Noren kontura barre egin*** *edo* ***Noren lepotik barre egin*** da gaztelaniazko esamolde horren euskarazko ordaina.

- *Mirenen kontura barrezka jardun dabe.*

# 22

***Zeren buruz*** *egin bihar dozu berba*? ➜ **Zeren gaiñian** egin bihar dozu berba?

Gaur egunean oso zabalduta dago zerbaiten gaia azaltzeko, ***–ri buruz*** egitura erabiltzea. Zenbaitek, berriz, horren ordez, ****-ren buruz*** egitura okerra erabiltzen dute. Esan beharra dago, gure eskualderako bi horiek baino egokiagoa dela ***–ren gainean*** egitura, ***-ri buruz*** formak ere ez duelako tradizio luzeegirik ez hemen eta ez hemendik kanpo. Hala, beraz, egokitasunaren arabera, honela sailka genitzake hiru egiturok:

- ****Zeren buruz** hitz egin dabe? (Okerra)*
- ***Zeri buruz** hitz egin dabe? (Tradizio txikikoa)*
- ***Zeren gainean** hitz egin dabe? (Egokiena)*

# 23

***Zure bezela, betiko bezela, hemengo bezela*** ➜ **zu/zuk bezala, beti bezala, hemen bezala.**

-***ren*** eta –***ko*** izenlagunak osatzeko atzizkiak dira.

***Modu*** hitza izena da, deklina litekeena: *modu**a**, modu**ak**, modu**ari**, modu**aren**…* Horregatik onartzen ditu –***ren*** eta –***ko***z osatutako izenlagunak:

*Zure moduan, betiko moduan, hemengo moduan…*

***Bezala***, berriz, ez da izena; ezin da deklinatu: **bezala**k**, *bezala**ri**, *bezala**ren**…*

Horregatik ez du –***ren*** eta –***ko***z osatutako izenlagunik onartzen. Izan ere, ***-ren*** eta ***–ko*** izenlagunak osatzeko atzizkiak dira.
Hortaz:




*Nik **zure moduan** egingo dot.*
*Nik **zuk bezala** egingo dot.* ] **Zure bezala egingo dot*

***Horren modukoa** da.*
***Hori bezalakoa** da.* ] **Horren bezalakoa da*

***Betiko moduan** egin dabe.*
***Beti bezala** egin dabe.* ] **Betiko bezala egin dabe*

Nahaste horren jatorrian hauxe dago, dudarik gabe: ***modu*** forma (inguru honetan ohikoena zena) erreferentziatzat hartuta, horren erabilera bera eman zaio ***bezala***ri.

# 24

## *Zure baiño haundixagua* → Zu baiño haundixagua

Aurreko kasuan esan dugun moduan, ***Noren***en ondoren izen-sintagma batek joan behar du. Ezin dugu, beraz, ****noren baino*** egitura erabili.

Bestalde, konparatzen diren bi elementuek deklinabide kasu bera izan behar dute beti:

- **Ni(Nor) **zure**(Noren) baiño haundixagua naiz → Ni(Nor) **zu**(nor) baiño haundixagua naiz.*

- **Nik(Nork) **zu**(nor) baiño hobeto jokatzen dot → Nik(Nork) **zuk**(nork) baino hobeto jokatzen dot.*

# 25

**Futbolera** jokatuko dogu ➜ **Futbolian** egingo dogu,
**Futbolian** jokatuko dogu

***Zertan jokatu*** edo ***zer jokatu*** esaten da eta ez zertara jokatu.

Baina gogoan izan ***jokatu*** aditzaren ordez ***egin, ibili, jardun***… aditzak ere berdin-berdin erabil litezkeela.

- ***Fubolian** jokatuko dogu.*
- ***Saskibaloian** egingo dogu?*
- ***Musian** dabitz / Musian dihardue.*
- *Zeiñek egin nahi dau **pelotan**?*

Jokoari izena ekintza errepikakorren batek ematen dionean -***ka*** atzizkia erabili ohi da:

- ***Ikusi-makusika** ibili*
- ***Bale-baleka** ibili*

# 26

*Maisu, **baleike jun** komunera*? ➜ Maisu, **jun leike** komunera?

Aditz trinkoetan bai, baina aditz konposatuetan ez da ***ba***rik erabiltzen baiezkotasuna adierazteko. Entonazioaz egiten da. Era berean, galdera egiterakoan ere ***ba*** hori sobera dago.

- *Maisu badakizu zein datorren?*

Baina:

- *Maisu, urten geinke lehentxuago?*

# 27

*Eneko* ***badago***? ➜ Eneko **hor da(go)?**
➜ Eneko **etxean da(go)?**

Telefonoz berba egiterakoan-eta sarri entzuten dira ***Mikel badago?*** bezalako esaldiak. Gure inguruko tradizioan halakoak esateko ***Mikel hor da(go)? / Mikel etxean da(go)?*** erabili izan dira.

***Badago...?*** esaldia zerbaiten existentziari buruzkoa da:

- ***Ogirik badago?***

Pertsona batez galdetzen dugunean, pertsona hori guk galdetzen dugun tokian dagoen jakin nahi dugu. Bere existentziaz barik, lekuaz galdetzen dugu.

# 28

***Bi bat*** *galdu dogu* ➜ **Bi eta bat** galdu dogu
***Bi hamabost*** ➜ **Bi eta hamabost** (prezioa)

Kirol emaitzak adierazteko beti ***eta*** sartu ohi da bi zenbakien artean.
Era berean, prezioak esatean ere ***eta*** erabili beharko genuke: *bi (euro)* ***eta*** *hamabost (zentimo)*

# 29

***Ez*** *dau jaten* ***ezebez*** ➜ **Ez** dau jaten **ezebe**
*Nor etorri da?* ***Iñor***: ➜ Nor etorri da? **Iñor be ez (iñobez)**

***Inor***, ***ezer*** eta euren eratorriak ***ez***ekin joan behar dute derrigorrez ezezko esaldiak sortzeko baina ***ez*** bakarra izan behar dute.

- ****Ez*** *dau jaten ezebez (ezer be* ***ez****)* (Desegokia ***ez*** bi bider dagoelako).→ *Ez dau jaten ezebe (ezer be).*
- **Iñor etorri da* (Desegokia ***ez*** falta delako) → *Ez da iñor etorri.*




# 30

## *Ezebezena, ezebezekin, iñobezek* → Ezena be ez, ezekin be ez; inok pe ez

***Ezebez*** (***ezer bere ez***) eta ***iñobez*** (***iñor bere ez***) hitz bakartzat hartzearen ondorioz sortutako akatsa dela ematen du. Bi hitz-kateok izentzat hartu dira eta izenak bezala deklinatzen dira.

Deklinatu beharko liratekeenak, berriz, izenordainak (***inor, ezer***…) dira:

- **Iñobeze**k** → Iño**k** be ez (Iñopez)*
- **Iñunbez**en** → Iño**n** be ez (iñunbez):*
- **Ezebeze**tan** → Ezer**tan** be ez (ezetanbez):*

# 31

## ***Be bai*** *juan bihar dot nik* ➜ **Nik be** juan bihar dot

1.- ***be*** (ere) lokailuaren erabileran akats ugari egin ohi dira, gehienetan, ***be*** ez dagokion tokian jartzearen ondorioz. Adibidez:

| | |
|---|---|
| **Mikel hemen* ***dago be.*** → | ***Mikel be*** *hemen dago.* |
| **Bihar joango* ***gara be bai.*** → | ***Bihar be*** *joango gara.* |
| ****Be bai*** *Mikel etorriko da.* → | ***Mikel be*** *etorriko da.* |

Kontuan hartu ***be*** lokailuak beti joan behar duela erreferentziako osagaiaren atzean eta ondo-ondoan. Ahoskatu ere enklitiko gisa egiten da, erreferentziazko osagaiari lotuta. Hortaz, ezin da hasieran edo bakarrik joan.

Adibidez:

| | |
|---|---|
| *Josuk ekarri dau.* ****Be bai Jonek.*** → | *Josuk ekarri dau.* ***Jonek be*** *(Jonepe)* ***bai.*** |
| *Ana joan da. *Eta* ***be bai ni.*** → | *Ana joan da. Eta* ***ni be bai.*** |

2.- Kontu handia izan behar dugu erreferentziazko osagai hori egoki aukeratzearekin:

- *Guk goian afalduko dogu. Eta zuek?*
- **Goian* ***be****.*
- ***Guk*** *be(gupe) bai/****Guk*** *be (gupe) goian.*

3.- ***be*** ez da aditz jokatu atzizki gabe baten ondoan jarri ohi.

**Mikel etorri da be.* → *Mikel be etorri da.*

*4.-* Perpausaren aditza ezkutuan dagoenean, ***bai*** edo ***ez*** gehitu beharra dago. Esaterako*:*

| | |
|---|---|
| **Marta badoia, eta ni* ***be****. (banoa).* → | *Marta badoia eta ni* ***be bai****.* |
| **Zu ez bazoiaz, ni* ***be****. (ez noa).* → | *Zu ez bazoiaz, eta ni* ***be ez****.* |

***Bai*** partikulak aditz-sintagma ordezkatzen du; beraz, aditz-sintagma eta ***bai*** partikula batera erabiltzea ez da zuzena. Adibidez:

| | |
|---|---|
| **Nik* ***be bai*** *ikusi dot.* → | *Nik* ***be*** *ikusi dot.* |
| | *Nik* ***be bai****.* |

5. Bigarren perpausaren osagai guztiak ezabatuta daudenean ***baita/ezta*** formak erabili ohi dira, ***bebai/bezta*** formen ordez.

- *Josu etorriko da, eta zu? –*Bebai* → ***Baitta.***
- *Miren be ez da etorriko? –*Bezta.* → ***Ezta****.*

6. ***Baita… be*** eta ***ezta… be*** formak ere aditza ezabatzen denean erabiltzen dira, erreferentziazko elementua ***be***-ren aurrean dela. Gure inguruan ez dira inoiz erabili izan ***baita be/ezta be*** tartean ezer ez dela, nahiz eta beste euskalki batzuetan erabili ohi diren ***baita ere, ezta ere.*** Adibidez:

• *Mikel zinera juan da eta baita be Koldo / ... Koldo baita be.* (Gure hizkera tradiziorik gabeak.

• Mikel zinera juan da eta **baitta** Koldo **be**. (Gure hizkeran ohikoa.

7. ***be***-ren atzean aditz sintetiko bat (***daki, dator, dut***…) baldin badator, aditza ***ba***- aurrizkiarekin joan ohi da:

**Andoni be dator.* *Andoni **be ba**dator.*

8- Bukatzeko, ez dugu ahaztu behar gaztelaniaz ***también*** hurrenkera eta sekuentzietan erabiltzen dela. Kasu horietan euskaraz ***gainera*** eta ***bestalde*** juntagailuak erabil ditzakegu. Horiek aurretik zehaztutakoari zerbait gehitzen diote:

| | |
|---|---|
| • **Eta, bebai, hainbat sari irabazi dittu.* | • *Eta, **gaiñera**, hainbat sari irabazi ditu.* |
| | • *Eta, hainbat sari be irabazi ditu.* |
| • *Egia da, bebai , azterketa oso zailla zela.* | • *Egia da, **bestalde**, azterketa oso zaila zela.* |
| | • *Egia da azterketa be oso zaila izan zela.* |

# 32

## ***Ez dan ikusten*** *momentu batian* ➜ **Ikusten ez dan** momentu batian

Ezezko esaldietan honako hau da ordena arrunta:

• EZ + aditz laguntzailea + aditz nagusia.

Menpeko perpausetan, berriz, ordena arrunta beste hau da:

• Aditz nagusia + EZ + aditz laguntzailea.

• *****Ez dozun egiten** gauzak laga gerorako.* → ***Egiten ez dituzun** gauzak laga gerorako.*

# 33

## *Ezagutu dot **gizon bat**, Martokuan **bizi dala**?* ➜ Ezagutu dot **gizon bat**, Martokuan **bizi dana**?

Gaztelaniazko ***que*** guztiak ez dira euskaraz ***–(e)la*** atzizkiaren bidez ematen. Adibidez, egokia da ***–(e)la*** erabiltzea menpeko perpausa aditz baten osagarria bada:

• ***Creo que** vendrá tarde= **Uste dot** berandu etorriko **dala.***

Baina badira gaztelaniaz izenari lotzen zaizkion perpaus ***que***dunak.

• *No te acuerdas?… **una mujer que** vivía cerca de Martokua.*




Euskaraz azkeneko hauek ezin dira ***–(e)la*** atzizkiarekin moldatu eta horren ordez ***–(e)na***z osatu behar dira.

- *Ez zara gogoratzen... **andra bat,** Martoko inguruan bizi za**na.***

# 34

*Kontuz beroa **dagoela*** ➜ Kontuz beroa **dago eta.**

Aurrez esan bezala, gaztelaniazko ***que*** guztiak ez dira euskaraz ***–(e)la*** atzizkiaren bidez ematen. Honako bi esaldi hauetan ***que está caliente***-k esanahi desberdinak ditu:

- Me ha dicho *que está caliente*.
- ¡Cuidado *que está caliente!*

Lehenengoan ZER galderari erantzuten dio menpeko perpausak; bigarrenean, aldiz ZERGATIK edo ZER DELA ETA galderari erantzungo lioke. Lehenengo perpausa konpletiboa da eta bigarrena kausazkoa. Lehenengo kasuan egokia da ***–ela*** erabiltzea baina bigarrenean ez. Hala, beraz:

- *Me ha dicho que está caliente. = Beroa dago**ela esan** dost.*
- *Cuidado que está caliente. = **Kontuz** beroa **dago eta!***
- *No cojas eso, que no es tuyo = Ez hartu hori, ez da zuria **eta**.*

# 35

*Aurrera jarraitu eta, ezkerretara* ***hartzen*** ➜ ... ezkerretara **hartuta**

*Lan bat egin baliabideok* ***erabiltzen*** ➜ ... baliabidiok **erabiliaz**

Gaztelaniazko gerundioaren ordaintzat beti –***tzen*** erabiltzeko joera zabaltzen ari da gero eta gehiago. Baina gaztelaniazko gerundioa emateko bide asko ditu euskarak eta kasu bakoitzean egokiena aukeratzen saiatu beharko genuke.

Hona hemen, beraz, Xabier Alberdiren *Eskola Gramatika* liburutik hartuta, nola eman litekeen gaztelaniazko –***ndo*** (*estudia***ndo**) gerundioa:

**a)** ***-t(z)en*** formaz, ZERTAN galderari erantzuten dionean: *lurra ateratzen gabiltza, etxeko lanak egiten dihardu…*

**b)** ***–(e)z*** formaz, NOLA galderari erantzuten dionean: *nik asko disfrutatzen dut irakurri**z**, igeri **egiten** (zertan) igeri **eginez** (nola) ikasten da, lana honeik baliabidiok **erabiliaz** egin bihar da.*

**c)** ***–(e)z*** formaz, NOIZ(nola) galderari erantzuten dionean. Bi ekintzak aldi berean gertatzen dira: *irratia entzun**ez** egiten ditut lanak.*

**d)** ***–(e)la*** formaz, NOIZ galderari erantzuten dionean. Bi ekintzak aldi berean gertatzen dira: *ni bertan nengo**ela** izan zen istripua.*

**e)** ***–ta /-(r)ik*** formaz*, NOLA/(noiz)* galderari erantzuten dionean. Ekintza bat bestearen ondoren gertatzen da: *aurrera jarraitu eta ezkerretara hartu**ta** belaxe topauko dozu gure etxia.*

**f)** ***Eta*** juntagailuarekin. Kasu honetan ere ekintza bat bestearen ondoren gertatzen denean:
• *Sute ikaragarria izan zen **eta** kalte handiak eragin zituen.* ( **Sute ikaragarria izan zen kalte handiak eragin**ez**.*

**g)** ***–ka*** atzizki adberbialarekin: korrika, deika…

**h)** ***–(e)an*** atzizkia gehituz aditz partizipioari: egonean, ezer egin gabe, aspertu egiten da. (*egoten)

Bada moduzko esaldietan egiten den beste akats bat, gaztelaniaren eraginez sortua:
• **Hor dator eskuekin poltsikoan*.

***Eskuekin poltsikoan*** hori, dudarik barik, gaztelaniazko ***con las manos en el bolsillo***ren hitzez hitzeko itzulpena da. Euskarazko ordain jatorra –ELA moduzko atzizkiaz osatutakoa da:
• *Hor dator eskuak poltsikoan ditu**ela**.*

# 36

## **Hiltzeko** dago ➜ **Ixa hilian** dago**, hilixan** dago, **hil zorixan** dago**...**

Euskarazko ***hiltzeko*** eta gaztelaniazko ***para morirse*** baliokideak dira esanahi batean:

- Le falta poco para morirse: ezer gutxi bihar dau hiltzeko. (Helburua)

Baina ***hiltzeko*** ezin da erabili ***para morirse***-ren esanahi guztien baliokide gisa. Gaztelaniazko ***está para morirse*** esaldiak badu ***a punto de morirse*** esanahia baina euskarazko ***hiltzeko***-k ez.

A punto de… esanahi hori adierazteko, euskarak baditu beste baliabide batzuk:

- Apur***tzeko zorixan*** dago
- Apur***tuixan*** dago
- ***Ixa*** apur***tuan*** dago

Eta gure artean inoiz erabili izan ez dena, eta gaur egunean idatziz gehien ikusten dena:

- *Apur**tzear** dago.*

# 37

## ***Ez galdu ezkero...*** ➜ **Galdu ezik, galdu ezian...**

***Joan ezkero***… bezalako baldintzazko egituraren ezezkako ordaina osatzeko ***ezik*** edo ***ezian*** erabili ohi da:

- **Etxera ez joan ezkero... ( etxera joan **ezik**/**ezian**...*

# 38

## ***Dantzia eta gero*** ➜ **Dantzia bukatu eta gero**

***...eta gero*** aditzarekin batera joaten da:

- *bildu eta gero, erabaki eta gero...*

eta ez izenarekin:

- **bilera eta gero…*

Izenarekin batera joateko, badaude beste egitura batzuk*: dantzia**ren ondoren**, dantza **ostian**….*



# 39

## *Ointxe banoia* ➜ **Ointxe noia**
## *Hementxe danok gagoz* ➜ **Hemen danok gagoz**

-***txe*** eta ***ba***- eurekin doazen osagaiak galdegai bihurtzen dituzten atzizki-aurrizkiak dira. *Oin**txe** **ba**noia* esaldian biak sartu ditugunez, bi hitzak indartzen ari gara eta hori ez da zuzena, galdegaia bakarra izan behar du eta, esaldian.

***txe*** erakusleren bati, adberbioren bati... lotu ohi zaio indartu eta galdegai bihurtzen dugunean. Hala ere, gaur egun gero eta gehiago erabiltzen da galdegai izan barik ere.

****Hementxe danok gagoz*** esaldian, galdegaia ***danok*** da eta ez ***hementxe***.

***Hementxe*** indartu nahi izanez gero, aditzaren aurrean jarri beharko genuke:
- *Hementxe* gagoz danok

# Erdaratiko lokailuak eta egiturak

Jarraian erdarazko hitzez osatutako hainbat egitura aztertuko ditugu. Gehientsuenak lokailu edo testu-antolatzaileak dira. Badute, gainera, gehienek ezaugarri bat: esaldiaren aurrean kokatu ohi dira.

Neurri batean, euskarak duen gabezia baten (esanahi batzuk adierazteko aurreko lokailurik ez izatearen) adierazgarri ere izan litezke. Beste kasu batzuetan euskaraz aurreko lokailuak izan arren, ez dira landu izan. Horren adibide garbiena ***zegaittik (ze)*** kausazko lokailua dugu. Baina badira beste batzuk ere: ***zein da*** konparatiboa, ***eze*** konpletiboetako ilatiboa...

Hemen okertzat-edo jotako zenbait lokailu, adibidez, Elexpururen *Bergara aldeko hiztegian* jasota datoz, kasu batzuetan hiztun onen ahotik jasota, gainera, eta ez dira han baztergarritzat jotzen. Azalpenetan emango dugu horren berri.

Bestalde, kasu batzuetan (***eske***...) ez da erraza okertzat jotako egituron ordez zer bultzatu beharko litzatekeen esatea, eta azterketa sakonagoa egin beharko litzateke gure eskualdeko euskaldun onek zer baliabide erabili izan dituzten jakiteko eta zer bultzatu behar den erabakitzeko. Zenbait kasutan, ahozko lagunarteko hizkerarako onartu beharrekotzat ere jo ditugu, gainera.

# 40

## *A* **ke** ez **dakizula! (Erronka)** ➜ **Ezetz jakin! /Baietz jakin!**

## *A* **ke** ez **dala etorri** irakaslea!? **(Galdera)** ➜ **Ez dala etorri** irakaslea**?**

Goian jarri ditugun bi adibideak ez dira berdinak: lehenengoan hiztunak erronka botatzen dio entzuleari; bigarrenean, berriz, hiztunak galdera egin eta irakaslea etorri ez izanaren konfirmazioa eskatzen dio. Kasu bakoitzeko ordain egokiak hauek dira, beraz:

- ******A ke ez dakizula zein etorri dan! (erronka)*
  - *Ezetz jakin zein etorri dan!*
- **A ke ez dala etorri irakaslea!? (galdera)*
  - *Ez dala etorri irakaslea!?*

Bigarren esaldi horren azpian honelako zerbait izango genuke:

- *(Esaidazu/esaiozu) egia dala ez dala etorri irakaslea.*

Era berean, bigarren kasuan (galdera) erabiltzen da honako beste egitura hau ere:

**Irratia piztuta daukazu, baietz?*

Egitura horren ordain jatorrak honako hauek dira:

- *Irratia piztuta daukazula!?*
- *Irratia piztuta daukazu, ezta?*

Azkenik, hona hemen ***bai*** eta ***ez***ekin osatzen diren esaldi traketsak eta ordain jatorrak:

- *A que bai! / *A que ez!* ➜ *Baietz! / Ezetz!*

# 41

## **Eske**... ➜ **...izan be... / ... eta... / ...baina... /...ze... / ...eze...**

***Azalpena, arrazoia, aitzakia***... adierazteko erabiltzen den lokailua. Askotan bera huts-hutsik ere erabiltzen da, aitzakia edo arrazoia esan gabe uzten dela. Ahozko jardunean, ia seguru, zabalduen dagoen erdal loturetako bat.

Juan Martin Elexpuruk badakar bere hiztegian eta berak dioenez, *"Inoiz **eze** edo **ze**rekin alternatzen du. Adin handikoek ez dute asko esaten"*. Baina ***ze*** eta ***eze*** *sarreren* azpian ez dator adibiderik eta testuetan ere ez dugu aurkitu.




Hona hemen baliokide izan litezkeen zenbait egitura:

- *Eske* ez dakigu zer egin. → Ez dakigu, **baina**, zer egin. / Zer egin ez dakigu **eta**!
- *Eske zuek umiak zarete ta.* → **Izan be**, zuek umiak zarete ta... / (Izan be) zuek umiak **izan**!

Edozein modutan, aurrez adierazitako moduan, ahozko jardunean nahiko zabalduta dago eta lagunarteko hizkeran *eske* bera ere onartzekoa izan liteke.

# 42

## ... **asi ke**... ➜ **...(bai), eta... / Pentsaizu... / ...orduan... / ...hortaz... / ...beraz...**

Esatera doana, hiztunak, aurrez esandakoaren ondoriotzat hartzen duela adierazteko erabiltzen da. Kasu batzuetan, ondorioa bera esan gabe, entzuleak ateratzeko, ere uzten da.

Esango nuke ***asike*** hori esaldi hasieran datorrenean, ***ataraizu kontuak, pentsaizu, egin kontu, kontu egin***... eta horrelakoak erabili ohi direla.

*Bergara aldeko hiztegi*tik ateratako adibideak dira hauek:

- *Gizonoi zihero eranai emunda ei dago. –Pentsaizu; etxe haretan egongo da jiria.*
- *Mendiko garosaillak, danak burdiñaratu eitten zien; pentsaizu.*

Bestalde, nire ustez, perpaus barruan, asko erabiltzen den beste egitura bat ***...bai, eta...*** da, kasu batzuetan ***bai*** ezabatuta. Hona hemen zenbait adibide:

- **Berandu da; **asike**, mobiru zaitez. → Berandu da **bai, eta** mobiru zaittez.*
- **Berandu etorri zara, **asike** orain aguantau. → Berandu etorri zara, **eta** orain aguantau.*

***Asi ke*** horren sinonimotzat jo liteke ***osea ke*** ere, eta euskaraz ere ordain parekoak izango lituzke.

Bukatzeko, esan dezagun ***asike***-ren ordain hurbilenak batuaz horren zabalduak diren ***beraz*** eta ***hortaz*** izan litezkeela eta ez genukeela baztertu behar gure ahozko jardunera ekartzea.

# 43

## **Aunke**... ➜ ...baina... / ...nahiz eta... / ...ba... be / ... hala be...

Esango genuke hiztun arruntetan ez dagoela oso zabaldua, baina erabiltzen da. Debarroko hizkeran be ordain ugari ditugu:

- **Azkenean lortu zeban **aunque** asko kostau jakon*
  - *Azkenean lortu zeban, **baina** asko kostau jakon*
  - *Azkenean lortu zeban, asko kostata, **baina**.*
  - *Azkenean lortu zeban, **nahiz eta** asko kostau jakon*
  - *Azkenean lortu zeban, asko kostau **ba**jakon **be**.*
  - *Asko kostau jakon; **hala be**, lortu zeban.*

# 44

## ...**porke**... ➜ ...ze... / ...eze... / ...zegaittik eze... / ...eta

Esaldi kausal esplikatiboetan menpeko esaldiaren hasieran sarri erabiltzen den lokailua da ***porke*** erdal jatorrizkoa. Gure euskaran baditugu euskarazko ordain arruntak:

- ***...ze... /... eze...*** Euskara batuko **ezen.** Adibidez**:**
  - *Gaur zeuk egin errekauak, **ze** bestela ez dot dentistiagana joateko astirik izango.*
  - *Gero etorri zaittez laguntzera, **eze** bestela ezingo dot lana akabau.*

- ***zegaittik (ze/eze)... Zegaittik eze***ren gainean "Adineko jendeak eta ez hain adinekoak juntagailu gisa erabilia" dela dio Elexpuruk bere hiztegian. Bertako adibidea da hau:
  - *Etzaittez biar etorri **zegaittik eze** bihar illan azkena da ta jente asko egongo da.*

- ***... eta.*** Esaldi bukaeran:
  - *Gero etorri zaittez laguntzera, bestela ezingo dot lana akabau **eta**.*

# 45

## **Ya ke** zurekin be egon bihar naizen... ➜ Zurekin be egon bihar naiz**enez (gero)...**

Menpeko esaldiari lotuta, esaldiaren hasieran agertzen da ***ya ke.*** Kausa edo azalpena adierazi ohi du eta askotan nolabaiteko kontzesio bat eskatzeko erabili ohi da, ***behintzat*** edo ***gutxienez*** hitzez lagunduta. Kasu batzuetan esaldi nagusia ezabatuta agertzen da.

Euskaraz esanahi bereko ordain erabiliena –***enez*** da.

- ****Ya ke** hemen zauden, lagundu egidazu lan hau egiten. → Hemen zaud**enez**, lagundu egidazu lan hau egiten.*
- ****Ya ke** zeuk ez duzun ezer egin bihar, bestioi lagaiguzu, behintzat. → Zeuk ezer egin bihar ez dozu**nez**, bestioi lagaiguzu, behintzat.*

Antzeko testuinguruetan erabili ohi da batzuetan ***aprobetxatuaz*** hitza:

- *Hemen zagozela **aprobetxauaz**, gauzatxo bat eskatu bihar dotsut.*

Edo ***zela ...-n*** egitura:

- Zeuk **zela** ez dozu**n** ezer esaten, neuk esango dot.

# 46

## ... **ke**... **–la** ➜ **...-la / ...eze... –la.**

Esaldi konpletiboen hasieran gaztelaniazko ***que*** lokailua erabiltzen dute gaur egun hainbatek. Euskaldun arruntetan aurreko lokailurik ez erabiltzea da gaur egun normalena:

- *Brauliok esan zeban erretiroko papelak oinddio eztittuala eiñ.*

Hala ere, Elexpuruk dioenez, pertsona adinekoek ***eze*** erabiltzen dute sarri eginkizun horretarako**:**

- *Brauliok esan zeban eze erretiroko papelak oinddio eztittuala eiñ.*
- *Oinddio zuen aittajaunak ziñuan eze berak amar errotatik gora ezautuittuala Ubera aldian.*

# 47

## Aber... / Aber ba... ➜ Ia... / Ia ba...

Elexpururen hiztegian ontzat emanak datoz ***aber*** eta ***aber ba...*** Egia da edadeko hiztun jatorrek ere erabiltzen dituztela eta, ondorioz, lagunarteko hizkeran, behintzat, ontzat eman beharrekoak iruditzen zaizkigu. Hala ere, ez genuke ahaztu behar badirela beste bi forma, Elexpuruk berak sinonimotzat jotzen dituenak eta bizi-bizi daudenak: ***ia...*** eta ***ia ba... (***Batuko ***ea / ea ba).***

- *Ia ba, aurten uda ona daukagun!*

Berbeta jasoan bigarrenak aukeratu beharko genituzke.

# 48

## ...**si ez dozu egin ezebe**...➜ ...ezebe ez dozu egin **baina**! / ezebe ez dozu egin **eta**! / ezebe ez dozu egin **barren**!

Harridura adierazten du gaztelaniazko ***si*** horrek. Gaztelaniaz ere ***¡Pero si...!"-***ren baliokidea da.

- *¡Si no te había conocido! = Ez zaitut ezagutu eta!*
  *= Ez zaitut ezagutu, baina!*
  *= Ez zaitut ezagutu, barren!*

Euskaraz ere normala da harridura adierazteko egituraren bat jartzea hasieratik:

- ***Ene ba***, ez zaittut ezagutu eta!
- ***Baina-baina,*** *ez zaittut ezagutu eta!*




# 49

## *Inkluso*... ➔ Ez bakarrik..., ...be... /...(baita) ...be...

Lehen esandako zerbait areagotzeko eta berarekin doan sintagmari edo menpeko esaldiari enfasia emateko erabiltzen da. Batuan ordain gertukoena ***are*** izango luke baina gure eskualdean ez da erabiltzen. Hemen, gehienetan ***be/ere***-rekin bideratzen da eta batzuetan beste indargarriren batzuk gehitu ohi zaizkio: ***ez bakarrik, gehixago oindio, bera, orduantxe...***

- ***~~Inkluso~~*** *edurra egiten dauenian be, entrenatzera joaten da.*
    - *Edurra egiten dauenian be, entrenatzera joaten da.*
    - *Ez bakarrik hori, edurra egiten dauenian be, entrenatzera joaten da.*

- ***~~Inkluso~~*** *amarekin be hasarre dago.*
    - *Amarekin be hasarre dago.*
    - *Amarekin berarekin be hasarre dago.*
    - *Gehixago oindio, amarekin berarekin be hasarre dago.*

## 50

### *... osea*... ➜ **... hau da... / ...esan nahi dot...**

Aurrez azaldutakoa beste era batera azaldu eta argitzeko erabiltzen dira ***osea*** edo ***osea ke*** testu-antolatzaileak. *Bergara aldeko hiztegia*-n agertzen diren adibideetan ikus litekeenez, hiztun onetan ere nahikoa zabalduta daude. Edozein modutan, euskaraz baliokide bat baino gehiago daude: ***hau da, (zera) esan nahi dot, hau da esan nahi dudana...*** Horietaz aparte, beste hizkera batzuetan oso erabiliak diren beste batzuk ere badira*:* ***alegia, hots, erran nahi baita***

- *Gero, hasten zan bigarren zatixa,* **hau da,** *irakasle ta ikaslien arteko eztabaidia.*

Mereziko luke azterketa sakonagoa egitea gure hizkeran zer antolatzaile erabiltzen ditugun jakiteko, baina horren faltan goian adierazitakoak bultza litezkeela uste dut.

## 51

### **de pirata** jantziko naiz ➜ **pirata jantziko naiz**.

### **de que** disfrazauko za**?** ➜ **Zelan** disfrazauko zara? / **Zer** jantziko dozu?

Orain arte ohikoa ***izena mugagabean + jantzi*** egitura erabiltzea izan da: ***pirata jantzi, ume jantzi, pailazo jantzi...*** Orain **–z** instrumentalaz osatutako egiturak (***pirataz jantzi, umez mozorrotu, pailazoz mozorrotu...)*** ere zabaldu dira baina ez dute tradiziorik eta aurrekoak hobetsi beharko genituzke.

Galderak egiteko bide ohikoenak, berriz, goian adierazitakoak dira.

## 52

### Nik nahi dot **de fresa** ➜ Nik nahi dot mailuki**zkoa.**

Janarien osagaiak adierazteko bide bat baino gehiago erabiltzen da euskaraz. Azterketa sakona eskatuko luke, eta ez gara hemen horretan sartuko. Besterik barik, esango dugu era honetako baliabideak ikusten direla gehien: **hitz-elkarketa, -zko** atzizkia**, –ren** atzizkia**, -dun** atzizkia**.** Bakoitzaren erabilera guztiz zehatz finkatzea ez da erraza. Hala ere, zenbait azalpen orokor ematen ausartuko gara:



• **Hitz-elkarketa.** Kasu gehientsuenetan erabil liteke eta, ahal denetan, bultzatu beharrekoa da: *tortilla bokadillua, patata puria, tomate saltsia, whiski tarta...*

• **-zko.** Jakia ***zerezkoa*** edo ***zerez egindakoa*** den adieraziko luke: *bainillazko jogurra, ardi-esnezko gaztaia, artirinezko ogia...*

Galdera egiterakoan, berriz hainbat aukera izango genituzke.

• ***Zer + jakia***: ***Zer jogur*** *nahi dozu zuk?.* Formarik erabiliena hauxe izango da seguruena.
• **Zerezkoa..?**: ***Zerezkua*** *da gaztai hau?*
• ***Zegaz egindakoa?: Zegaz egindakoa*** da ogi hau?

Batuko hiztegietan *(*Sarasolaren *Euskal Hiztegian,* adibidez*)* agertzen dira ***urdaiazpikozko bokadillua, zerezko bokadillua*** eta horrelako adibideak baina gure inguruan ez dute tradiziorik eta horien ordez, beste baliabide batzuk erabili izan dira:

• ***Urdaiazpiko bokadillua*** *(Hitz elkarketa)*
• ***Zer bokadillo*** *nahi dozu? (Zer + jakia)*

Egia da, hala ere, baliabide horiek ere badituztela beren mugak eta gure inguruko hiztun onek ere erabiltzen dutela, adibidez, ***zeren*** kasua:

• ***Bokadillua, zerena*** *nahi dozu?*




- **-ren.** Hainbat jakiren ***osagaia, edukia,*** edo ***jatorria*** adierazteko erabiltzen da: ***baba beltzen puria***, ***eguerdiko leken saldia***... Era berean, goian esan bezala, gure artean normalak –eta, nire ustez, onartzekoak– dira ***bokadillo***, ***tortilla*** eta antzeko berbekiko erabilerak ere: ***Tortillak dauzkatzue berakatz berdiena, perretxikuena...***

- **-dun.** Jakiak zer osagai (normalean bigarren mailako osagaia) duen adierazteko erabiltzen da: txokolate almendraduna, yogur mahaspasaduna...

# 53

## ¡Que...! ➜ Bai...! / A ze...! / Zelako...! / Hori...! /...

Sarri esan ohi da gure artean euskara-erdara nahastea oso zabalduta dagoela, oso ohikoa dela erdi-euskara erdi-erdara jardutea. Nahasketa horren barruan, gaztelaniaz sarri bota ohi den multzoetako bat harridurazko esaldiena da. Sarri-sarri entzun ohi ditugu, adibidez, horrelakoak: *¡Qué plasta!, ¡Qué bueno!, ¡Qué pelma!, ¡Qué pasada!, ¡Qué suerte!, ¡Qué morro!, ¡Qué gracia!....*

*Euskarak hainbat baliabide ditu harridura adierazteko. Jarraian horietako batzuk azalduko ditugu:*

| EGITURA | ADIBIDEAK |
|---|---|
| ***Bai*** **erabilita:** | |
| • Bai (adjektiboa / adberbioa)!<br>• Bai (adjektiboa / adberbioa)... ela! | • *Bai ederra! Ointxe bai ondo!*<br>• *Bai polita dala! Bai ondo ibili garela!* |
| **Galdetzaileak erabilita:** | |
| • Zelako (adjektiboa/adberbioa/izena)!<br>• Azelako(txe) (Adjektiboa / izena)!<br>• A ze (adjektiboa/izena)!<br>• Ze (adjektiboa / adberbioa)! | • *Zelako politta! / Zelako ondo! / Zelako penia!*<br>• *Azelakotxe lelua / Azelakotxe atxurra!*<br>• *A ze kankailua! / A ze kotxia!*<br>• *Ze politta! / Ze ondo!* |
| **Erakusleak / izenordainak erabilita** | |
| • **Behin erabilita**:<br>• Hori (da) (izena/adjektiboa)!<br>• Horrek (die) (izena/adjektiboa)!<br>• Hi haiz (adjektiboa)!<br>• (adjektiboa) hori!<br>• (adjektiboa) hori, halakoori!<br>• **Errepikatuta**:<br>• Hau (da) (izena/adjektiboa) hau!<br>• Horrek (die) (izena/adjektiboa) horrek!<br>• Hi haiz (izena/adjektiboa) hi! | <br>• *Hori da etxia! / Hori da baldarra!*<br>• *Horrek izterrak! / Horrek die alperrak!*<br>• *Hi haiz lelua!*<br>• *Gizurtixoi!*<br>• *Gizurtixoi, halakuoi!*<br><br>• *Hau da burrundaria hau! Hau billurtixa hau!*<br>• *Horrek belarritzarrak horrek!*<br>*Horrek die narrusenduek, horrek!*<br>• *Hi haiz arraiña, hi! / Hi haiz elegantia, hi!* |
| **Atributua izenaren aurretik jarrita** | |
| • Atributua + izena! | • *Ederra emakumea! / Latza sermoia!* |

# 54

**Beste batzuk:**

- **Ves**? ➜ **Konturatzen haiz?; Ikusi...!; Ikusten…! Hara! Hor ba…**
- **Bale** ➜ **Konforme, ondo da, ederto…**
- **Ya está** ➜ **Kitto, eginda...**

# Lexikoa

## 55

*Nere* ***zorionak*** ➜ Nere **eguna/urtebetetzia**

***Zorionak!*** gizalegezko edo onginahizko esapidea da, zorioneko zerbait gertatu zaionari esaten zaiona. Ezin da ordea, izentzat erabili, ***urtebetetzea*** edo horrelako ezer adierazten duela.

## 56

*7etan* ***juntau gara*** *≠* ***7etarako*** **geratu ga**

***Geratu*** aditza, besteak beste, zitak, hitzorduak, erabakixak adierazteko erabiltzen da:

- *Zertan geratu zarete? = Zer erabaki dozue?*
- *Nun geratu zarete? = Nun elkartzekotan geratu zarete?*
- *Gero Frontoian geratu gara = Gero Frontoian juntatzekotan geratu gara*

Zenbaitzuk geratu aditzaren ordez ***juntau*** eta ***elkartu*** aditzak erabiltzen dituzte ***geratu***-ren ordez, batez be hitzorduak eta adierazteko, baiña ***juntau***k eta ***elkartu***k ez dituzte ***geratu***k dituen esanahi horiek.




Norbaiti ***Nun juntau zarete?*** esaten diogunean ez diogu galdetzen non elkartzea erabaki duten, baizik eta benetan non elkartu diren.

• *Gaur goizian Maiterekin alkartu naiz. ≠ Gero Maiterekin (alkartzekotan) geratu naiz.*
*(ekintza bukatua da) (ekintza oraindik ez da gertatu)*

• *Frontoian juntau gara ≠ Frontoian (alkartzekotan) geratu gara.*
*(ekintza bukatua da) (ekintza oraindik ez da gertatu)*

Beraz, desegokia izango litzateke ***Frontoian juntau gara*** esaldia geroko zita bat adierazteko.

***Juntau gara, elkartu gara****…* egiturek gertatu den ekintza baten erreferentzia egiten dute; inoiz ez, gertatzeko dagoen batena.

# 57

## *Haize* ***asko*** ➜ Haize **haundixa**, haize **zakarra**…

Izen arruntak **zenbakarriak** edo **zenbakaitzak** izan daitezke. Hau da, batzuk konta daitezke (*bi etxe, lau mahai…)* eta beste batzuk ez *(hotza, gosea, pena…)*

Azken horiekin erabiltzen dugun galdetzailea ***zenbat*** izan beharrean ***zelakoa*** da:

• ***Zenbat*** *etxe!*

*Baina*

- ***Zelako** hotza!*

Arrazoi beragatik, horiekin ***asko***-ren ordez, ***haundia***, ***zakarra, luzea***… erabili beharko genituzke:

**Bide asko gelditzen da. → Bide luzia gelditzen da*
**Beldur asko dotsa. → Beldur haundixa dotsa.*
**Egarri pilla bat daukat. → Egundoko egarrixa daukat*

# 58

## ***Espainiako erregeak** etorri dira* ➜ **Espainiako errege-erreginak** etorri dira**.** (*Generoa pluralean)*

Gaztelaniak genero desberdintasuna markatzeko, gehienetan, ***–o*** edo ***–a*** morfema lotzen dio hitzaren erroari: ***chico/chica, hijo/hija***… Euskaraz, ordea, genero diferentzia egiten den kasu apurretan, izen bikotearen bidez egiten da: ***neska/mutilla, semea/alaba*…**

Plurala osatzerakoan, berriz, gaztelaniak ***–os*** morfema erabili izan du: ***chicos, hijos***… eta horren eraginez, euskaraz ere, izen-bikotean genero maskulinokoa hartu eta pluralgilea eransteko joera dago. Baina euskaraz, berez, ez dute esanahi bera ondorengo bi egiturok:

- *Mutikoak (hor ez da neskarik) ≠ neska-mutikoak*

Euskaraz, beraz, genero bietako elementuak daudela esan nahi badugu, izen-bikotearen bidez eman beharra dugu.

- *Seme-alabak, jaun-andreak, errege-erreginak, maisu-maistrak, aitta-amak…*

# 59

## ***Siestia bota** bihar dot* ➜ **Siestia egin** bihar dot

Gazteleraren kalkoa eginez sortutako egitura. Beste kasu batzuetan ere ***bota*** gehiegi erabiltzen da:

- **Faltan botatzen dot → haren faltia somatzen dot.*

# 60

***moztu* ≠ *ebagi* ≠ *zatitu*.**

Gaztelaniazko ***cortar*** guztiak ***moztu*** bihurtu dira. Baina ***cortar*** adierazteko modu bat baino gehiago du euskarak eta bakoitzak baditu bere ñabardurak. Hona hemen Ibon Sarasolaren *Euskal Hiztegia*tik hartuta, bakoitzaren esanahia:

**Moztu**: Zerbaiti muturra kenduta, motzago bihurtu.

- *Ilea moztu, besoa moztu, makila moztu…*

**Ebagi**: Lanabes aho-zorrotz batekin zauria edo arrakala egin. Esanahirik orokorrenekoa da eta ***moztu***ren tokia har dezake baina ez alderantziz.

- *Kutxillo honek ez dau ezebe ebagitzen / *mozten*

**Zatittu/txikittu**: zatiak egin.

- *Okelia zatittu, ogixa zatittu, egurra txikittu / *Okelia moztu, *ogixa moztu, *egurra moztu...*

**Zehetu**: zati txikiak egin. ***Zehe-zehe egin*** ere bai.

# 61

**Futbolian jolastu ➜ Futbolian Jokatu**

Azalpen orokor bat emanik, esan genezake ***Jokatu*** galtzaileak eta irabazleak daudenean egiten dela: futbolean, pelotan, kartetan… ***Jolastu*** edo ***jolas egin***, ostera, lehiaketarik ez denean: soka-saltoan, bale-baleka, itsu-itsuka…

Kiroletan, beraz, ***jokatu*** erabili ohi da.

# 62

***Beste egunian*** **➜ Jun zan egunian, oiñurrenguan**

Gaztelaniazko ***el otro día***-k bi esanahi ditu; horietako bat ***el día pasado***.




Eta euskaraz ere, gaztelaniako erabilera hori kalkatu eta ***beste egunian*** bi esanahirekin erabiltzen da:

- **Beste egunian mendira jun giñan (Joan zen egunian*-en ordez)
- *Egun baten mendira jun giñan eta beste egunian etxian geratu giñan.*

Bigarren adibidean egoki erabilita dago ***beste egunian*** baina lehenengoan ez; bere ordez, ***joan zan egunian*** edo ***oiñurrenguan*** erabili ohi da.

# 63

## ***Pena merezi*** *dau ikustia* ➜ **merezi dau** ikustia

**Pena merezi *du*** egitura erdararen eraginez sortutakoa da. Euskaraz **merezi du** erabili izan da, besterik barik.




# 64

## *Apur bat berua* *dago* ➜ **Berotxoa** dago / **bero samarra** dago / **nahiko berua**

***Apur bat*** (eta baita ***puxka bat*** ere) zenbatzailea da eta ez graduatzailea. Ezin da beraz, adberbioekin edo adjektiboekin erabili. Horien ordez, beste baliabide batzuk erabiltzen dira, beraz:

- **Apur bat txarto egin dozu, e!*
  */ Eskastxo egin dozu, e!*
  */ Eskas samar egin dozu, e!*
  */ Nahiko txarto egin dozu, e!*
- **Apur bat zaila da.*
  */ Zailtxoa da!*
  */ Zail samarra da!*
  */ Nahiko zaila da!*

# 65

## *Esaixozu* ***zure aittai*** ➜ Esaixozu **aittai**

Ahaidetasuna adierazten duten izenekin, jeneralean, ez da posesiborik erabiltzen eta testuinguruaren laguntzaz ulertzen da.

• **Nire arrebarekin joango naiz → Arrebarekin joango naiz.*

Eta edozein kasutan, jarri beharra izanez gero, pluralean jartzea da jatorrena:

• *Gure amamak 80 urte egin bihar dittu.*

Era berean, etxeari edo etxeko ondasunei buruzko erreferentzia egitean ere plurala erabili izan da euskaraz:

• *Gure etxia, gure kotxia…*

# 66

## ***Kriston ona*** *da* ➜ **Ikaragarri ona** da*;* **oso ona** *da*

***Kriston*** (*Kristoren*) lagunartekoa dela dio Sarasolak ***Euskal Hiztegian*****.** Erregistro horretan erabiltzea litzateke, beraz, normalena.
Bestalde, orain arte izenekin bakarrik erabili izan da:

• *Kriston etxia, kriston kotxia…*

Orain, aldiz, adjektibo zein adberbioen graduatzaile gisa ere erabiltzen da, batez ere gazteen artean. Beharbada, hizkuntzaren bilakaera naturaltzat hartu beharko genuke eta lagunarteko erregistroetan ontzat eman. Hala ere, ona hemen bestelako ordain batzuk:

• *Kriston karua, kriston zatarra…*
*/ Ikaragarri karua! / Oso karua!*
*/ Oso zatarra! / Zatar-zatarra!*

Esan beharra dago, era berean, ***kriston*** horren esanahi berarekin, zenbait tokitan zabaldua dagoela, hau ere gazteetan, ***jota*** berba: ***Jota ona, jota karua…***

***Kriston***-en gainean esan dugun bera esango dugu: lagunarteko gazte-hizkeran sortua da eta erregistro horietan denaren beharrean gaudenez, ontzat ematekoa izan liteke.

# 67

## Gizon ***berdinak*** esan zostan. ➜ **Gizon berak/berberak** esan zostan

***Bera/berbera*** hitzak behin baino gehiagotan agertzen zaigun objektu edo pertsona bakarra adierazteko erabiltzen dira:

• *Gaur be alkondara bera/berbera jantzi dot*. (Atzoko bera, adibidez)

***Berdina***, ostera, objektu edo pertsona bat baino gehiago izanik, euren arteko antza erabatekoa denean erabiltzen da:

- *Gaur be alkondara berdina jantzi dot.* (Bi dauzkat berdinak eta gaur horietako bat jantzi dot).

# 68

*Beti **iguala/berdina** egiten dau* ➜ Beti **gauza bera** egiten dau

Gaztelaniazko *lo mismo (la misma cosa)* adierazteko ***iguala/berdina*** erabiltzen dute gaur egun hainbatek. Horren ordez, ***gauza bera*** erabili izan da tradizioan.

# 69

***Gosia daukat*** ➜ **Gosiak nago**

***Gosiak egon, egarrixak egon***... erabili izan da normalean eta ez ***gosia euki, egarrixa euki...*** Bide horretatik, gose edo egarri hori handia denean, era honetako esaldiak esango ditugu:

- *Gosiak amorratzen nago.*
- *Egarrixak itto biharrian nago.*

# 70

## Haur hizkera

Ume txikiekin jardutean nagusiek egin ohi dituzten zenbait erdarakada azalduko ditugu hemen. Euskaldun peto-peto askok ere egin ohi dituztenak dira horietako batzuk, gainera; erdarak gure hizkuntzan egindako azpijanaren seinale.  Zenbait kasutan, gainera, ume berbetatik beste jardun batzuetara ere zabaldu dira.

a) **Erdarazko diminutiboak erabiltzea.** Hau da akatsik zabalduena. Hona hemen zenbait adibide eta horien ordain egokia zein izango litzatekeen:

- **Egingo dogu **lolitos**?* ➜ ***Lo-lo** egingo dogu?*
- **Hartu **chupetito**:*➜*Hartu txupete**txu**a*




- ***Bolitasak** *dauzkat:*➜*Bola**txu**ak dauzkat.*
- **Emun* ***patxito*** *bat:*➜*Emun pa**txo** bat.*

**b) Hitzak -*a* artikulua barik esatea.**

- **Jango dozu* ***yogur****?*➜*Jango dozu* ***jogurra****?*
- **Nahi dozu* ***membrillo****?*➜*Nahi dozu* ***menbrillua****?*
- ***Pate** ekarri dot*➜***Patia** ekarri dot*

**c) Erdarazko egiturak**

***¡Qué rico!*➜ *Ze goxua*! *Bai goxua!***

- ***Que guapa!*➜ *Zelako dotore!***
- **Oin* ***a lolo*** *joan bihar dogu.*➜ *Oin* ***lo-lo egittera*** *joan bihar dogu.*

# 71

**Erdarazko lexikoa**:

Hizkuntzaren lexiko iturrietako bat da mailegua. Hala ere, ez litzateke inolako neurririk barik erabili behar. Ahal dela euskarak bere baitan dituen baliabideak erabili beharko genituzke. Ez dira onartzekoak, adibidez, era honetako maileguak

- ***moratoia:*** **beltzunia/ubeldua**
- ***burrerixia:*** **astolekua, astotegixa**
- ***Perreria:** **txakurtegixa**
- ***Yemazko*** pastelak: **gorringozko** pastelak
- ***Koskorroia:*** **kokotekua, burukua**

Mailegu gordinen multzo honetan, oso arruntak dira, esaterako, kolpeak adierazteko erabiltzen direnak: *puñetazua, koskorroia*... Euskaraz ***–ko*** eta ***–kada*** atzizkiak erabiltzen dira, besteak beste, horretarako:

- *–ko*. ***Kolpia non eman den*** adierazten du. Adibidez:
    - BURUKUA: buruan emandako/hartutako kolpea.
    - BETONDOKUA: betonduan emandako/hartutako kolpea

- *-kada*: ***Kolpia zerekin emoten dan*** adierazten dau:
    - BURUKADIA: buruaz emandako kolpea.
    - MAKILAKADIA: makilarekin emandako kolpea

# Fonetika

Dudarik barik bat baino gehiago dira azken aldian fonetika aldetik gertatzen ari diren aldaketak. Garai batean *ezkoiaz, ezkatoz, ezkiñan*... esaten zirenak gero eta gehiagotan *ezgoiaz, ezgatoz, ezgiñan*... esaten dira gaur egun. Garai batean *eleuke, elitzake, elegoke*... esaten zirenak, *ezleuke, ezlitzake, ezlegoke*.

Hala ere, adin bateko pertsonetatik ume eta gazteetara zeharo aldatu den ebakera bat nabarmendu nahi izan dugu bakarrik:

## 72

***Ez jat*** *gustatzen* ➜ **Etxat** gustatzen

Idatzi ***ez jat*** *gustatzen* idatzi ohi dugu baina esan ***etxat*** *gustatzen*. ***Ez + j*** multzoa **etx** ahoskatzen da.

# Bibliografia


**Gramatika eta hiztegiak**

- *Antzuolako hizkera*. Jone Larrañaga. Antzuolako Udala. Antzuola,1997.
- *Bergara aldeko hiztegia*. Juan Martin Elexpuru. Bergarako Udala. Bergara. 2005.
- *Bergarako Euskera*. UNEDeko EKD. Bergara, 1988.
- *Eskola Gramatika*. Andres Alberdi. Elkar-G.I.E. Donostia,1996.
- *Euskal Estilo libururantz*. Gramatika, estiloa eta hiztegia. Xabier Alberdi eta Ibon Sarasola. EHU, 2001.
- *Euskal Gramatika. Lehen urratsak* – I-V. Euskaltzaindia, 1990-1999.
- *Euskal hiztegia*. (2. edizioa) Ibon Sarasola. Kutxa Gizarte- eta Kultur Fundazioa. 1996.
- *Euskera 2000,2 (Hiztegi Batua).* Euskaltzaindia, 2000.

**Akatsak lantzeko materialak**

- Aretxabaletako *Aretxagazeta* aldizkariko *Nerea Euskerajatorregi-ren ibilerak* izeneko komikiak.
- *kontuan izan!!* Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Gasteiz, 2000.
- Oñatiko Udalak argitaratzen duen *Kontzejupetik* aldizkariko *Ttirri-ttarra* atala.
- *Zalantza-dantza.* IVAP. 2000.

# 2
# ARIKETAK

**Karmele Agirregabiria**
**Karmen Bikuña**

# Sarrera

**Ariketak**
Zuzendu nahi diren akatsen inguruan ariketak proposatzen ditugu. Ariketa hauen helburua da akats horien gaineko gogoeta eragitea. Ariketotan datozen esaldiak bizitza arruntean azaltzen direnak izan daitezen saiatu gara.
Komeni da, hala ere, hasieratik garbi uztea ariketa hauek proposamena baino ez direla, eta guraso eta irakasleei zuzendutakoak. Zuen esku geratzen da dauden-daudenetan erabili, moldatu edo aldatzea.

**Ariketa motak**
Ohikoak diren ariketak erabili ditugu. Hutsuneak bete, okerrak zuzendu, esaldiak osatu, eta abar.
Ariketak bilatzeko lanak errazte aldera bai azalpenak bai horren gaineko ariketak zenbaki bera daramate. Bestalde, badugu "Handik eta hemendik" izeneko ariketa bat. Hor bildu nahi izan ditugu gainontzekoetan lekurik izan ez dutenak, nola hala lexiko mailako akats batzuk eta erdaratik jasotako lokailu eta egiturak.

**Zuzenketa**
Ariketen ondoren zuzenketak aurkituko dituzue. Ariketa batzuek erantzun posible gehiago izan dezakete, nahiz eta bakarra egon jasota.

Ariketak, Interneten ere badaude, hartu, kopiatu eta erabiltzeko:
www.badihardugu.com/argitalpenak/euskara_hobetuz

# ARIKETAK

## 1

## Aukeratu

**1.** Domekero egoten da pelikularen bat zinean eta gu domekero ________________ (joaten gara/ joango gara).

**2.** Mikel, zer asmo daukazu domekarako. ____________ basora? (joaten gara/ joango gara)

**3.** Aspertuta nago, ______________bizikleta? (hartzen dugu/ hartuko dugu)

**4.** Guk oso ondo pasatzen ditugu oporrak. ______________ (hartzen dugu/ hartuko dugu) bizikleta eta errekara joaten gara arratsaldea igarotzera.

**5.** Eska ezazu eskalopea, okela _____________ (gustatzen zaizu/ gustatuko zaizu) eta, askotan jaten duzu behintzat.

**6.** Mirenen bizikleta oso-oso polita da, _________________ niri ere horrelakoa? (erosten didazu/ erosiko didazu).

# 2

## Aukeratu esaldi bakoitzari dagokiona

**1.** Nik oporretan Soria aldera ______________(joan / joatea) nahi dut.

**2.** Amak beti nahi izaten du ni 10etarako etxean ______________(egon/egotea).

**3.** Gero ogia erostera ______________(joan / joatea) behar duzu?

**4.** Alabak pelikula hori _____________ (ikusi/ikustea) nahi du.

**5.** Andereñok guk liburu hau biharko ______________ (irakurri/irakurtzea) nahi du.

**6.** Banoa, lanera ______________ (joan/joatea) behar dugu eta.

**7.** Nik ez dut ezer ___________ (esan/esatea) nahi.

**8.** Gurasoek nik beti egia ______________(esan/esatea) nahi dute.

**9.** Ikastaro hori egiteko izena ____________ (eman/ematea) nahi dugu.

**10.** Ez dizut gomendatzen hara ______________ (joan/joatea).

**11.** Zure ondoan _____________ (egon/egotea) nahi dugu.

**12.** Zuek isilik ______________ (egon/egotea) nahi dugu.

# 3

## Esan ezazu zeinek egin eragin dizkidan hauek, hau da zeinengatik ari naizen berbetan

| | ZEINEK? |
|---|---|
| **1.** Babarrun platerkada oso-osoa jan eragin dit. | |
| **2.** Nire gustukoak ez diren oinetakoak jantzi eragin dizkit. | |
| **3.** Txiklea ahotik atera eta bota eragin dit. | |
| **4.** Kotxea behar bezala aparkatu eragin dit. | |
| **5.** Nire gogoko jostailua berari utzi eragin dit. | |

A. Amak edo aitak
B. Ikastetxeko jantokiko arduradunak
C. Irakasleak/ maisuak/ andereñoak
D. Nebak/ arrebak/ ahizpak
E. Udaltzainak

## Orain zuk asmatu!
## Zer gehiago eragiten digute horiek?

| |
|---|
| |
| |
| |
| |
| |

# 4

## Aukeratu erantzun zuzena

**1**. Ez duela kalera joan nahi?
   a) Bada, geratzeko etxean.
   b) Bada, gera dadila etxean.

**2.** Miren! Egin zure anaiaren ohea!
   a) Nik? Egin dezala berak!
   b) Nik? Egiteko berak!

**3.** Itziar! Zoaz zure lagunengana eta eskatu barkamena?
   a) Zergatik? Nik ez dut ezer egin. Datozela eurak nigana barkamena eskatzera.
   b) Zergatik? Nik ez dut ezer egin. Etortzeko eurak nigana barkamena eskatzera.

**4.** Nik utzitako liburua galdu badute ...
   a) Erosteko beste bat.
   b) Eros dezatela beste bat.

**5.** Hau Maddiren oparia da. Ondo ez badauka, edo gustatzen ez bazaio
   a) joateko dendara eta aldatzeko.
   b) joan dadila dendara eta alda dezala

**6.** Ez daudela gustura tokatu zaien ordutegiarekin?
   a) Izorratzeko.
   b) Izorra daitezela.

**7.** Hondartzara joaten badira,
   a) Ibiltzeko kontuz txapapotearekin.
   b) Ibil daitezela kontuz txapapotearekin.

**8.** Bere urtebetetzea bada,
   a) Ordaintzeko berak
   b) Ordain dezala berak

# 4

## Osatu esaldiak ereduan bezala

**1.**

**Jon**: Mikel, andereñoak esan du berehala joateko. (ni, Asier)

**Mikel**: Zer esan du? Ni joateko esan du? Joan dadila Asier.

**2.**

**Jon**: Mikel, amak esan du ogia erosteko. (nik, Kepak)

**Mikel**: Zer esan du? Nik erosteko esan du? Eros __________ Kepak.

**3.**

**Jon**: Mikel, amak esan du merienda jateko. (nik, berak (amak))

**Mikel**: Zer esan du? Nik ______________ ? _____________ berak.

**4.**

**Jon**: Mikel, aitak eta amak esan dute eskuak garbitzeko. (Guk, eurek (aitak eta amak)

**Mikel**: Zer esan _____ ? Guk ____________ ? _____________ eurek.

**5.**

**Jon**: Mikel, amak deitu du eta esan du telefonoan jartzeko. (ni, Koldo)

**Mikel**: ____________ ? Ni ______________ ? _____________ Koldo.

**6.**

**Jon**: Mikel, amak esan du lanerako tresnak eramateko. (Guk, Mirenek eta Itsasok)

**Mikel**: _____________ ? Guk ____________ ? _____________ Mirenek eta Itsasok.

# 5

## Emandako aukeretatik zein da zuzena?

**1.** a) Ez dakit zenbat balio duen zuri gustatu zaizun jostailuak.

b) Badakizu zenbat baliotzen duen tresna horrek?

**2.** a) Guk ez dugu kantatzeko baliotzen, beraz alferrik zabiltza, ez gaituzu kantatzeko konbentzituko.

b) Aizu, zenbat da dena? Egin kontua, mesedez.

**3.** a) Zenbat egun faltatzen dira oporrak hartzeko? Oporrak hartzeko irrikan nago!

b) Hemen primeran bizi gara, ez zaigu ezer falta.

**4.** a) Taberna horretako komunean beti zerbait falta izaten da: papera ez bada, xaboia.

b) Ni ez naiz hemen bizitzen, hurrengo bebarruan baizik.

## Nola zuzenduko zenituzke gaizki daudenak?

# 6

## Aukeratu esaldi egokia(k)

**1.** a) Arratsalde osoan dantzatu naiz.
b) Arratsalde osoan dantzatu dut.
c) Arratsalde osoan egin dut dantza.

**2.** a) Patxik lagunekin jolastuko du.
b) Patxi lagunekin jolastuko da.
c) Patxik lagunekin egingo du jolas.

**3.** a) Normalean neskek neskekin jolasten dute eta mutilek mutilekin.
b) Normalean neskak neskekin jolasten dira eta mutilak mutilekin.
c) Normalean neskak neskekin ibiltzen dira jolasean.

**4.** a) Zure anaia oso ondo dantzatzen da.
b) Zure anaiak oso ondo dantzatzen du.
c) Zure anaiak oso ondo egiten du dantza.

**5.** a) Bertako zelaitxo batean jolasten ziren.
b) Bertako zelaitxo batean jolasten zuten.
c) Bertako zelaitxo batean ibiltzen ziren jolasean.

**6.** a) Soinua jo dizuegu eta duzue dantza egin.
b) Soinua jo dizuegu eta ez zarete dantzatu.
c) Soinua jo dizuegu eta ez duzue dantzatu.

**7.** a) Ederto jolastu gara; futbolean egin dugu.
b) Ederto jolastu dugu; futbolean egin dugu.
c) Ederto ibili gara jolasean; futbolean egin dugu.

**8.** a) Danborraren soinuarekin dantzatzen direnean ...
b) Danborraren soinuarekin dantzatzen dutenean ...
c) Danborraren soinuarekin egiten dutenean dantza ...

# 7

## Aukera ezazu parentesi barruan dauden aditzetako bat

**1.** Gaur goizean supermerkatuan ikusi _____________ (dizut/ zaitut), baina ez ____________ (didazu/ nauzu) kasurik egin.

**2.** Barkaidazu! Hurrengoan agurtuko ___________ (dizut/ zaitut).

**3.** Bada, alferrik izango da, nik ez______________ (dizut/ zaitut) agur egingo.

**4.** Eramango _______________ (diguzu/ gaituzu) autoz lanera? Autobusak alde egin digu eta berandu helduko gara.

**5.** Ez ________________ (diguzu/ gaituzu) ekarri eskatu genizun liburua?

**6.** Bilbon eskale bati jipoi ikaragarria eman diote eta hil egin _________ (dute/ diote).

**7.** Beste hori, berriz, teilatutik jausi da, baina ez zaio ezer gertatu, Supermanek salbatu ________________ (dio/ du) eta.

**8.** Bihar bere urtebetetzea da eta ahaztu barik zoriondu behar _________ (diot/ dut).

# 8

## Esaldi hauen artean zein dago zuzen?

**1.** a) Ostikada ederrak joten ditu futbolari horrek.
b) Ostikada ederrak ematen ditu futbolari horrek.

**2.** a) Isiltzen ez bazara, ipurdiko bat joko dizut.
b) Isiltzen ez bazara, ipurdiko bat emango dizut.

**3.** a) Pasatzerakoan kokoteko bat eman dit.
b) Pasatzerakoan kokoteko bat jo dit.

**4.** a) Batzuek esaten dute bere garaian ipurdiko bat jotzea ona dela.
b) Batzuek esaten dute bere garaian ipurdiko bat ematea ona dela.

**5.** a) Izugarrizko berotua eman diote.
b) Izugarrizko berotua jo diote.

**6.** a) Nik ez dizut sekula belarrondokorik jo.
b) Nik ez dizut sekula belarrondokorik eman.

**7.** a) Zergatik jo didazu ostikada?
b) Zergatik eman didazu ostikada?

**8.** a) Aitak sekula ez dit belarrondokorik jo.
b) Aitak sekula ez dit belarrondokorik eman.

# 8

## Aukeratu aditz egokia eta osatu esaldia

**1.** Mikelek Joni ostikada _______________

**2.** Jonek Mikel _______________________

**3.** Nik zuri belarrondokoa _______________

**4.** Ainarak baloia gogor ________________

**5.** Nik zu ____________________________

**6.** Zuk ni ____________________________

**7.** Guk hari belarrondokoak _____________

**8.** Anderrek ni _______________________

**9.** Maitek niri begiondokoa ______________

# 9

## Okerrak zuzendu

**1.** Aintzane bizikletatik jausi, eta hanka apurtu da.

**2.** Itxoin apur bat, berehala jantziko naiz eta zurekin joango naiz.

**3.** Buruan kapela horia ipini naiz, eta oso dotore nago, ez?

**4.** Ez zara orraztu, ala? Sekulako tximak dauzkazu!

**5.** Ondo orraztu zaitez ilea, e?

**6.** Min egin naiz belaunean, emango didazu tirita bat?

# 9

## Aukeratu egokia

**1.** Gaur ere jertsea atzekoz aurrera jantzi ______________ (zara / duzu).

**2.** Ilea moztu ______________ (naiz / dut).

**3.** Ez ______________ (zara / duzu) txapela jantzi?

**4.** Kolpe bat hartu ______________ (da / du).

**5.** Ezin ______________ (naiz / dut) erropa hori jantzi.

**6.** Bihar praka berriak jantziko ______________ (naiz / ditut).

**7.** Maritxu Kajoin soineko beltza janzten ___________ (da / dute) neskek.

**8.** Elurretara bagoaz, mendiko botak jantziko ____________ (naiz / ditut).

**9.** Ezin ______________ (zara / duzu) gona gorria jantzi, oraindik ez diot barrena hartu.

**10.** Amantala jantzi ______________ (dira / dute) eskulanak egiteko.

# 10

## Aukeratu egokiena

**1.** Gero zurekin jolastuko ______________ (naiz/dut).

**2.** Ikaragarri argaldu ______________ (da/du).

**3.** Neskok goiz osoan entrenatu _____________ (gara/dugu).

**4.** Gaixorik egon nintzenean argaldu egin _____________ (nintzen/nuen).

**5.** Ginekologoak haserre egin dit, komeni den baino gehiago gizendu ___________ (naiz/dut) eta.

**6.** Gau osoan dantzatu ______________ (gara/dugu). Apurtuta gaude.

**7.** Jokalari horiek gogor entrenatu ______________ (dira/dute).

**8.** Aspertuta nago. Jolastuko _____________ (gara/dugu)?

**9.** Arratsaldean jolas egingo ________________ (zarete/duzue)?

# 10

## Esan esaldi hauek ondo edo txarto dauden

### (Txarto daudenak zuzendu)

| | ONDO | TXARTO |
|---|---|---|
| **1.** Ez duzu asko gizendu haurdunaldian | | |
| **2.** Txikitan elkarrekin jolasten ginen. | | |
| **3.** Horko horiek ez dute sekula dantzatzen. | | |
| **4.** Ez da asko gizendu soldaduskan. | | |
| **5.** Manek ez du Alaves taldea entrenatzen. | | |
| **6.** Futbolariak ez dira goiz osoan entrenatu. | | |
| **7.** Zergatik ez duzu Aitorrekin jolasten? | | |
| **8.** Ene! Nola gizendu zaren! | | |
| **9.** Ene! Zenbat argaldu duzun! | | |
| **10.** Primeran dantzatu zarete. | | |
| **11.** Gaixotu zenean argaldu zen. | | |
| **12.** Ikasleek ez dute entrenatu. | | |
| **13.** Jolastuko gara? | | |
| **14.** Botika horiek hartzen hasitakoan gizendu zuen. | | |

# 11

# Aukeratu

**1.** Nizkioke / nituzke

a) Nik, aukera edukiz gero, horko horri kontutxo batzuk esango _____ .

b) Nik, aukera edukiz gero, bileran kontutxo batzuk esango ________ .

**2.** Dut / diet

a) Nik ez ______ lagunei ezer esan.

b) Nik ez ________ ezer esan.

**3.** Genuen / Genizuen / Zenuten / Zeniguten

a) Guk zuei mesedez eskatu ______ etortzeko, eta zuek ez ______ erantzun ere egin.

b) Guk egin _________ lana, baina zuek jaso __________ saria.

**4.** Ziguten / zuten

a) Gurasoek oso leku ona aukeratu _________ oporrak pasatzeko.

b) Gurasoek guri oso opari ederra ekarri _________ oporretatik.

**5.** Zenidake / zenuke

a) Astirik hartuz gero, egingo __________ kirola?

b) Astirik hartuz gero, egingo __________ (niri) mesedetxo bat?

**6.** Genuke / Genizuke

a) Mendian galduko bagina ere, erraz aurkituko _________ itzultzeko bidea.

b) Mendian galduko bagina ere, bila joateko ez ________ zuri deituko.

# 12

## Bete itzazu hutsuneak adizki egokia jarrita

**1.** Praka gorriak jantzi behar___________ .

**2.** Guk ez ___________ zure jostailuak ekarri.

**3.** Zer? Erosi behar ___________ gozokirik?

**4.** Non utzi ____________ umeek arropak?

**5.** Horiek ez ___________ jantziko guk ekarritako mozorroak.

**6.** Bada, horiek agian ez, baina nik probatu behar __________ .

**7.** Egin ___________ andereñoak agindutako ariketak? Guk arratsaldean egin behar __________ .

# 13-17

## Zuzendu esaldiak

**1.** Guk ez gekigun nora joan.

**2.** Zuek bazekizuen nor zen Aitorren aita?

**3.** Guk ez zotsagun ezer egin, bera hasi zen.

**4.** Guk, orduan, ez zeukagun kotxerik, eta autobusean ibiltzen ginen.

**5.** Esan zotsazun irakasleari zergatik ez zinen agertu?

**6.** Ikusi zozun atzoko pelikula?

**7.** Etxeko lanak oso berandu bukatuko zenuela esan dotzuten.

# 14

## Aukeratu erantzun zuzena

**1.** Aitor Londresera doala?
   a) Neu ere joango nintzen.
   b) Neu ere joango nintzateke.

**2.** Izaskunek, berriro ere, kotxea aldatu du.
   a) Horrek daukan dirua edukita, neuk ere aldatuko nuen sarri-sarri.
   b) Horrek daukan dirua edukita, neuk ere aldatuko nuke sarri-sarri.

**3.** Maitek kontua eskatu eta joan egin da.
   a) Ahal bagenu, geu ere joango ginateke.
   b) Ahal bagenu, geu ere joango ginen.

**4.** Depresioak jota ingresatu dute Itziar.
   a) Zuri ere gertatuko zitzaizun haren egoeran egongo bazina.
   b) Zuri ere gertatuko litzaizuke haren egoeran egongo bazina.

**5.** Josu zeharo mozkortuta joan da etxera.
   a) Zeu ere mozkortuko zinen horrek edan duen guztia edango bazenu.
   b) Zeu ere mozkortuko zinateke horrek edan duen guztia edango bazenu.

**6.** Mireni 200.000 euro tokatu zaio .
   a) Hartuko nuke apur bat!
   b) Hartuko nuen apur bat!

**7.** Ze polita eta zintzoa den ume hori!
   a) Esna ikusiko bazenu, ez zenuke horrelakorik esango.
   b) Esna ikusiko bazenu, ez zenuen horrelakorik esango.

**8.** Berogailua hondatu da eta Pello ur hotzaz dutxatu da.
   a) Horrek dauka balorea! Neu, behintzat, berogailua hondatuko balitz, ez nintzateke dutxatu ere egingo.
   b) Horrek dauka balorea! Neu, behintzat, berogailua hondatuko balitz, ez nintzen dutxatu ere egingo.

# 14

## Aukeratu erantzun zuzena

**1.** Etxe horri balkoia erori zaio.
   a) Ganoraz eginda egon balitz, ez zen horrelakorik gertatuko.
   b) Ganoraz eginda egon bazen, ez zen horrelakorik gertatuko.

**2.** Bihar merendola.
   a) Zure anaia etorriko balitz, ondo-ondo pasatuko luke.
   b) Zure anaia etorriko bazen, oso ondo pasatuko luke.

**3.** Langile horiek kalera bota dituzte.
   a) Isilik egon baziren, oraindik lanean egongo lirateke.
   b) Isilik egon balira, oraindik lanean egongo ziren.

**4.** Ama! Ez dut baloia aurkitzen!
   a) Bere lekuan gorde bazenu ...
   b) Bere lekuan gorde bazenuen ...

**5.** Mikel oso aspertuta egon omen da asteburuan.
   a) Gurekin etorri bazen ...
   b) Gurekin etorri balitz ...

**6.** Gurutze Donostiara joan da eta ez du Bilintx denda aurkitu.
   a) Galdetu bazuen ...
   b) Galdetu balu ...

**7.** Hartuko dugu kafetxo bat?
   a) Orain ezin dut. Lehentxoago esan bazenuen ...
   b) Orain ezin dut. Lehentxoago esan bazenu ...

**8.** Gaur denetik gertatu zait, kotxea izorratu, autobusak ihes egin, bazkaria erre ...
   a) Jesus, neska! Jaiki ez bazinen, hobe.
   b) Jesus, neska! Jaiki ez bazina, hobe.

# 15

## Esan esaldiok ondo edo txarto dauden

**(Txarto daudenak zuzendu)**

| | ONDO | TXARTO |
|---|---|---|
| **1.** Egin zeinke lantxo hau?<br>Bihotzez eskertuko notsuke. | | |
| **2.** Ahal dot erosi izozkixa? | | |
| **3.** Emon leikedostazu euro bat kafia ordaintzeko?<br>Ez daukat txanponik eta. | | |
| **4.** Egin geinke atsedenalditxo bat? | | |
| **5.** Irten ahal naiz lagunekin bueltatxo bat egittera? | | |
| **6.** Joan leikezara, baina ez etorri berandu! | | |
| **7.** Bixar lana daukat, baina zu joan zeinke,<br>ondo pentsaitten bazatzu. | | |
| **8.** Orduan, hurrengo baterako utzi leikedogu.<br>Hobe da bixok joatia. | | |

# 16

## Eman zuzen ondorengo esaldiak

**1.** Esan zioat berandu hasten baduk gu ezingo gaitukela geratu.

**2.** Anek esan din bihar ez zegonela klaserik.

**3.** Agertzen ditukenean, esaiek bulegora joateko, gauzatxo pare bat entzun behar ditek eta.

**4.** Amari neuk lagunduko zionatela esan dinat, eta kitto!

**5.** - Umeak ezin ditun horrelako tabernetan sartu.

\+ Nola ezin ditunala sartu? Zeinek esan din tontakeria hori?

**6.** Patxi eta Miren ezkontzekoak ditukela esan zidatek. Heuk bahekien?

**7.** Azterketa atzeratu egingo ditekela entzun diagu.

**8.** Badakin noiz etorriko dunan Maite?

# 18

## Bete hutsuneak parentesi barruan dauden formetako batekin

1. Ez daukat ___________ (dirua/dirurik), ez asko, ez gutxi, oraindik ez dut pagarik jaso eta.

2. Ez dut aurkitu Mireni oparia erosteko jarri genuen ____________ (dirua/dirurik).

3. Badaukazu erromeriara joateko ___________ (asmoa/ asmorik)?

4. Ez daukat ________ (gogoa/ gogorik), baina zuri laguntzeagatik joango naiz.

5. Etxean ez dago _____________ (ogia/ ogirik).

6. Ez dugu ikusi zuk aipatutako ______________ (pelikula/ pelikularik). Esan zenuen dibertigarria zela, ezta?

7. Nik ez nizuen inolako ______________ (pelikula/ pelikularik) aipatu, zuek nahastu egin zarete.

8. Amak ez du ____________ (lana/ lanik) aurkitzen.

9. Amak ez du aurkitu nik mahai gainean utzitako ________ (lana/ lanik).

# 20

## Aukeratu erantzun zuzena

**1.** Ume hori beti dabil ________________ egiten.

a) tontoa

b) tontoarena

**2.** Gaur goizean ____________ egiten harrapatu ditut.

a) pailazoarena

b) pailazoa

**3.** Aitor! Orain ere ____________ egiten?

a) astoa

b) astoarena

**4.** Josune! Ez dizut hamaika bider esan ____________ ez egiteko?

a) gaixoarena

b) gaixoa

**5.** Orain ere puntarik punta. Beti ____________ egiten.

a) ahuntza

b) ahuntzarena

**6.** Hor dabil Markel, _____________ egiten.

a) sasijakintsua

b) sasijakintsuarena

**7**. Harro-harro sartu zen, ____________ egiten ziharduela.

a) aberatsarena

b) aberatsa

**8.** ___________ egin gura izan du, baina ez du inor engainatu.

a) jatorrarena

b) jatorra

# 21

## Esaldi hauen artean zein dago zuzen?

**1.** a) Andoni Mirenena gustatzen da.
b) Andoni Mirenekin gustatuta dago.

**2**. a) Maiderrena berbetan daude.
b) Liburua Maiderrena da.

**3.** a) Ez dira gurea fidatzen.
b) Ez dira gurekin fidatzen.

**4.** a) Zeinena gustatzen zara?
b) Zein gustatzen zaizu?

**5.** a) Nolakoa zaren! Ez zara inorena fidatzen.
b) Nolakoa zaren! Ez zara inorekin fidatzen.

**6.** a) Gu, behintzat, ez gara mutil horrekin fidatzen.
b) Gu, behintzat, ez gara mutil horrena fidatzen.

**7.** a) Zeinena zabiltzate berba egiten?
b) Zeinen gainean zabiltzate berba egiten?

**8.** a) Nirea gustatzen dela esan dit.
b) Nirekin gustatuta dagoela esan dit.

**9.** a) Zuri buruz jardun dute.
b) Zurea jardun dute.

**10.** a) Galdetu du inork nirea?
b) Galdetu du inork nigatik?

# 22

## Aukeratu egokiena

**1.** Txangoari /Txangoaren

a) Klasean ________________ gainean egin dugu berba.

b) Klasean ________________ buruz egin dugu berba.

**2.** Zure /Zuri

a) Goiz osoa _______________ buruz berba egiten eman dugu.

b) Goiz osoa _______________ gainean berba egiten eman dugu.

**3.** Zeri / Zeren

a) _____________ buruz egin behar duzu berba hitzaldian?

b) _____________ gainean egin behar duzu berba hitzaldian?

**4.** Futbolari /Futbolaren

a) Mutilek _______________ gainean baino ez dute berba egiten.

b) Mutilek _______________ buruz baino ez dute berba egiten.

**5.** Heziketaren /Heziketari

a) Aspaldion komunikabideek asko hitz egiten dute ___________ buruz.

b) Aspaldion komunikabideek asko hitz egiten dute ___________ gainean.

**6.** Lan egoerari / Lan egoeraren

a) Adituek ________________ gainean jardun dute.

b) Adituek ________________ buruz jardun dute.

**7.** Langabeziaren /Langabeziari

a) ________ buruz berba egitea erraza da, konpontzea ez da hain erraza.

b) ________ gainean berba egitea erraza da, konpontzea ez da hain erraza.

**8.** Seme-alaben / Seme-alabei

a) Gurasoak gehienetan ______________ gainean berba egiten egoten dira.

b) Gurasoak gehienetan ______________ buruz berba egiten egoten dira.

# 23

## Aukeratu erantzun zuzena(k)

**1.** Ume hori ___________________ da.

a) zu modu-modukoa

b) zure modu-modukoa

c) zure bezalakoxea da

d) zu bezalakoxea da

**2.** Bihar, _____________, bueltatxo bat emango dugu.

a) betiko moduan

b) betiko bezala

c) beti moduan

d) beti bezala

**3.** Lan hori txukun egin gura baduzue, ________________ egin behar duzue.

a) gure moduan

b) gure bezala

c) guk bezala

d) guk moduan

**4.** Han ere, ________________, txakurrak oinutsik.

a) hemen moduan

b) hemengo moduan

c) hemengo bezala

d) hemen bezala

**5.** Irakasleei, _______________, parrandan ibiltzea askotxo gustatzen zaie.

a) ikasleen moduan

b) ikasleei bezala

c) ikasleei moduan

d) ikasleen bezala

# 23

## Osatu esaldiak aukera biak erabilita

**1.** Ni ere (como tú) ___________ nago, neka-neka eginda eta erdi gaixorik.

___________________ bezala _______________________.

___________________ moduan ___________________.

**2.** Ostiraletan afaldu eta gero, (como siempre) _______________, Goenkale ikusiko dugu.

___________________ bezala ___________________.

___________________ moduan ___________________.

**3.** Han ere ogia ___________________ (como aquí) egiten dute.

___________________ bezala __________________.

___________________ moduan ___________________.

**4.** Nik 10ak arte geratu gura dut kalean, ___________________ (como los amigos).

___________________ bezala __________________.

___________________ moduan ___________________.

**5.** Guk ___________________ (como el año pasado) ibiltzeko asmoa daukagu, goizean pilotan ikastera eta arratsaldean igerian egitera.

___________________ bezala ___________________.

___________________ moduan ___________________.

# 24

## Jar itzazu konparazio hauetan konparatzen diren elementuak

Adibidez:

_______ ________ baino gazteagoa zara.
ZU NI baino gazteagoa zara.

**1.** _________ txakurrak ___________ baino gehiago jaten du, izan ere handiagoa da.

**2.** ___________ez dugu izaten _________ adina opor egun.

**3.** Eta etxeko lanak? ___________ __________ baino askoz zailagoak izaten dira.

**4.** ___________ jendeari _____________ baino errazagoa egiten zaio kontu horiek onartzea.

**5.** _______________ gurasoentzako _____________ bezain garestia izan da ikastaro hori, ez? Ez batak, ez besteak, ez zeukaten bekarik.

**6.** _________________ gelan ____________ adina jende dago.

# 25

## Baietz jarri guztiak bere lekuan!

**1.** Mutiko horiek gaur egun ez dute besterik egiten, ________________ baino ez. Plaza erdian jertseak-eta erabiliz porteria markatzen dute, eta hor ibiltzen dira Realeko jokalarien pare.

**2.** Guk, gure garaian, ez genuen _________________ Normalean, ___________________ ginen.

**3.** Hemengo jubilatuak egunero-egunero elkartzen dira jubiletxean eta ___________________ dute arratsalde osoa. Batzuetan ________________ dira eta beste batzuetan ____________ .

**4.** Guk, berriz, Gabonetan bakarrik __________________ .

**5.** Pilotalekua hutsik dago. Zeinek ____________________?

A. egin nahi du pilotan

B. egiten dugu kartetan

C. futbolean ibili

D. futbolean jokatzen

E. gorde-gordeka ibiltzen

F. jokoan ematen

G. musean aritzen

H. tutean

# 26

## Ondokoetatik, zeintzuk daude gaizki?

**1.** a) Aitor, bazatoz gurekin?
b) Miren, bazara etorriko gurekin?
c) Patxi, etorriko zara gurekin?

**2.** a) Ama, banaiteke Izaskunen etxera joan?
b) Ama, joan naiteke Izaskunen etxera?
c) Ama, joango naiz Izaskunen etxera?

**3.** a) Maite, badezakezu jakin nor etorriko den?
b) Maite, badakizu nor etorri den?
c) Maite, jakin dezakezu nor etorri den?

**4.** a) Ander, bada egon klaserik?
b) Ander, egon da klaserik?
c) Ander, badago klaserik?

**5.** a) Egon zaitezke 7etarako autobus-geltokian?
b) Bazaitezke egon 7etarako autobus-geltokian?

**6.** a) Banaiteke etor bihar zure etxera?
b) Etor naiteke bihar zure etxera?

**7.** a) Gera gaitezke zuekin?
b) Bagaitezke zuekin gera?

**8.** a) Ama, beldurrak nago. Badezaket zuekin lo egin?
b) Ama, beldurrak nago. Egin dezaket zuekin lo?

# 27

## Esan ondoko galderak ondo edo txarto dauden

| | ONDO | TXARTO |
|---|---|---|
| **1.** Badaude zure lagunak tabernan? | | |
| **2.** Badago ardorik etxean? | | |
| **3.** Julen ohean dago? | | |
| **4.** Badago zuzendaria? | | |
| **5.** Badago Amaia? | | |
| **6.** Liburua apalean dago? | | |
| **7.** Manex hor dago? | | |
| **8.** Elkartean badago esnerik? | | |
| **9.** Badago Josu elkartean? | | |
| **10.** Armairuan badago lekurik? | | |

# 27

## Elkarrizketak ordenatu

**1**

**1.** Etortzen denean esaiozu Koldori deitzeko.
**2.** Agur.
**3.** Zein da?
**4.** Ez, ez da iritsi oraindik.
**5.** Eskerrik asko. Agur.
**6.** Ederki, esango diot.
**7.** Amaia etxean dago?

Ordenatu: (3) ( ) ( ) ( ) ( ) ( ) ( )

**2**

**1.** Bale bada, erosi egingo dut.
**2.** Mikel, Marian naiz!
**3.** Ondo da, gero arte!
**4.** Ez dakit, oraintxe begiratuko dut… Marian!, Ez, ez dago batere.
**5.** Bai, zein da?
**6.** Aizu! Etxean badago ogirik?
**7.** Bai, agur.
**8.** A, zer?

Ordenatu: (5) ( ) ( ) ( ) ( ) ( ) ( ) ( )

**3**

**1.** Piszinara? Ez, ni patinetan ibiltzera joateko geratu naiz Maialenekin.
**2.** 4retan plazan.
**3**. Miren hor dago? Amaia naiz.
**4.** Konforme, joango naiz, gero arte.
**5.** Zein da?
**6.** Kaixo, Amaia, zer?
**7.** A, bale! Zer ordutan?
**8.** Miren, joango gara piszinara?
**9.** Bai, oraintxe jarriko da.

Ordenatu: (5) ( ) ( ) ( ) ( ) ( ) ( ) ( ) ( )

**4**

**1.** Esango diot.
**2.** Koldo Aizpururekin hitz egin nahiko nuke.
**3.** Agur.
**4.** Bueno, esaiozu Kontxik deitu duela eta gaur bertan hitz egin behar dudala berarekin.
**5.** Mila esker!
**6.** Bai, esan!
**7.** Momentu honetan ez dago bulegoan. Enkarguren bat ematea nahi baduzu…

Ordenatu: (6) ( ) ( ) ( ) ( ) ( ) ( )

# 28

## Aukeratu erantzun zuzena

**1.** Zer moduz partidua? Irabazi egin duzue?

a) Irabazi? 8 eta 1 galdu! Horixe egin dugu.

b) Irabazi? 8 - 1 galdu! Horixe egin dugu.

**2.** Partidu gogorra izan da.

a) Benetan. Hamar minutu falta zirela 2 - 2 zeuden.

b) Benetan. Hamar minutu falta zirela 2 eta bi zeuden.

**3.** Ospatu egin beharko dugu, ezta?

a) Bai horixe! Ez da egunero gaurkoaren antzeko partidua ikusten. 22 eta 2. Ez da makala, ez!

b) Bai horixe! Ez da egunero gaurkoaren antzeko partidua ikusten. 22 - 2. Ez da makala, ez!

**4.** Atzoko partiduak ez zuen kolorerik ere izan.

a) 96 – 40 galdu zuten etxekoek.

b) 96 eta 40 galdu zuten etxekoek.

# 29

## Esan esaldi hauek ondo edo txarto dauden

### (Txarto daudenak zuzendu)

| | ONDO | TXARTO |
|---|---|---|
| **1.** Etxean ez dago inor ere ez. | | |
| **2.** Zein etorri da? Inor. | | |
| **3.** Ez dut ezertxo ere egin. | | |
| **4.** Zeinek esan du tontakeria hori? Inork ere ez. | | |
| **5.** Oporretan ez daukagu inora ere ez joateko asmorik. | | |
| **6.** Nik ez dut ezer ere ez egin. | | |
| **7.** Ez dut inon ere ez ikusi horrelako gauza politik. | | |
| **8.** Zein geratu da etxea zaintzen? Inor. | | |
| **9.** Gurasoek ez digute ezer ez esan. | | |
| **10.** Ez naiz inorekin ere ez joango, nahiago dut bakarrik joan. | | |

# 30

## Erantzun adibidean bezala

Nor dago etxean? INOR ERE EZ, gurasoak lanean daude.

1. Zer daukazu hor gordeta? ____________________, kaxa hori hutsik dago.
2. Zeinena da txakur hori? ____________________, galdutako txakurra da.
3. Norekin joango zara jaialdira? ____________________. Neu bakarrik joango naiz, sarrera bakarra lortu dut eta.
4. Nork dauka 6.000 € niri uzteko? ____________________. Hobe duzu bankuan mailegua eskatzea.
5. Nori esan diozu hori? ____________________. Zer uste duzu? Kontakatilua naizela, ala?
6. Non eros dezaket saria irabazi duen liburua? ________________, agortuta dago. Liburutegira joan eta bertakoa irakurri beharko duzu.
7. Nora joango zarete oporretan? ____________________, etxean geratuko gara.
8. Zeinek egin dizu lan hau? ____________________, neuk bakar-bakarrik egin dut. Sinisten ez badidazu, amari galdetu!

# 31

## Eman zuzen ondorengo esaldiak

**1.** Nik ere bai ikusi dut.

**2.** Gaur goizean entzun dute ere.

**3.** Ere bai ekarriko dute denontzako merienda.

**4.** Zuek joan zarete, eta ere bai beste asko.

**5.** Asteburu honetan Arrasateko jaiak dira, eta hemengo auzo batekoak ere dira.

**6.** Horiek diru asko daukate eta guk daukagu ere.

**7.** Ez dugu inor ez aurkitu. Mirarik eta Amaiurrek ere.

**8.** Oporretan hondartzara joan dira, eta mendira baita ere.

**9.** Arrazoi duzu, ere bai, esaten duzunean gaur ez dela egun ona.

**10.** Non ikusi duzu baina horrelakorik? Inon.

# 32

## Esan esaldi hauek ondo edo txarto dauden

### (Txarto daudenak zuzendu)

| | | ONDO | TXARTO |
|---|---|---|---|
| **1.** | Alkatea ez da aurkeztu gonbidapena ez zaiolako garaiz iritsi. | | |
| **2.** | Arazoa ez bada laster konpontzen ... | | |
| **3.** | Berak gura duena ez dutenean egiten, haserretu egiten da. | | |
| **4.** | Ez baduzu parte hartzen, ez duzu sekula jakingo zer den. | | |
| **5.** | Ez badiote kasu egiten, haserretu egiten da. | | |
| **6.** | Ez dutelako gerente izendatu dago minduta. | | |
